#169
DOAN

2022 · 10 · 19
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

PERTSONA MIGRATUAK:
“Arrazismo instituzional asko dago, asilo eskaera gehienak ukatu egiten dira” 18-21 or.

IZARO BLANCO PIKATZA:
“Ringa oso gogoko dut, baina tatamia izan da ateak ireki dizkidan diziplina” 26-27 or.

“Tabernatik bota nahi naute 35 urtez errenta ordaintzen egon ostean”

ORDU ALDAKETA
Urriaren 30ean 3:00etan 2:00ak izango dira

AIARALDEA 3
Tubacexeko langile bati jarritako 3.000 euroko isuna, epaitegira
Laudioko Udaltzaingoa eta Tubacexeko grebalaria aurrez aurre eseriko dira azaroan

OROZKO 6
Ikastetxean konponketak egiteko dirua bideratzea eskatu du Eskolako kontseiluak
Gaia Udalbatzan eztabaidatu zen iragan astean

JENDARTEA 8
Ehunka lagun bildu ditu Buru osasunaren aldeko martxak
Asasam elkarteak haur eta nerabeen buru osasuna jarri du aurten erdigunean

EUSKARA 10-11
Zibererasoa jasan du Aiaraldea Komunikabideak
Gutxienez, zazpi dira halako erasoak aitortu dituzten euskarazko proiektuak

KULTURA 22-23
“1970eko hamarkadan margolari abstraktua nintzen jadanik”
Pedro Eguiluz margolariak erakusketa jarri du Orduña Hiria Museoan

KIROLA 28
Ehundik gora parte hartzaile bildu ditu Aiarako Mendi Duatloiak
Josu Urrestarazu eta Enara Oronoz gailendu ziren

herriz herri

Aiaraldea

Capital Energy enpresak bulego berria ireki du Bilboko Bizkaia dorrean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eraiki nahi dituen zentral eolikoen proiektuak bideratzeko asmoz. Horien artean aurkitzen da Jesuri mendi inguruan eraiki nahi duten Larragorri parke eolikoa.

Capital Energy enpresak azeleragailua sakatu du Jesuriko parke eolikoaren proiektuan

Larragorriko zentral eolikoaren aurka irailean egindako mendi martxa. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Capital Energy - Green Capìtal Development S.L. enpresak egoitza berria ireki du Bilboko Bizkaia dorrean. Vocento taldeak argitaratutako informazio baten arabera, Jesus Martin Buezasen enpresak bertatik bideratu nahi ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan aurreikusita dituen zentral eolikoak. Guztira zazpi dira euskal lurraldean konpainiak aurrera atera nahi dituen proiektuak, horien artean dago Jesuri mendi inguruan eraiki nahi duten Larragorri parke eolikoa.

Ingurumen inpaktua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, bere aldetik, Green Capital Development enpresa promotoreak egin beharreko ingurumen inpaktu azterketaren irismena aletzen duen txostena argitaratu du. Ingurumen inpaktu azterketa dokumentuaren irismena ezartzerako orduan, Jaurlaritzak enpresak aurkeztutako behin behineko txostena eta kontsulta fasean jasotako ekarpenak hartu ditu oinarritzat.

Martin Buezasen enpresak ekainean aurkeztu zuen oinarrizko txostena, eta bertan aletu zituen Jesuriko proiektuaren nondik norakoak; hala nola obren iraupena edota aerosorgailuen nolakotasuna.

Jaurlaritzak igorritako irismen dokumentuak ere, etorkizunezko balizko zentral eolikoak izango dituen ezaugarriak bai eta ingurunean eragingo dituen kalteen inguruko hainbat xehetasun azaltzen ditu ere. Xehetasun horien artean mugitu beharreko lur kantitateak aletu dituzte: 193.968 metro kubiko lur induskatu eta erretiratuko dituzte lurzoruaren kotak berdintzeko asmoz, 42.955 landare-lur erretiratuko dituzte, eta, azkenik ezpondak eraikitzeko 112.497 metro kubiko lur mugitzea aurreikusi dute.

Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren txosten baten arabera, 193.968 metro kubiko lur induskatu eta erretiratuko dituzte lurzoruaren kotak berdintzeko asmoz

Aerosorgailu bakoitzaren aldamenean, muntaketa-plataforma bat eraikitzeko beharra adierazten du irismen dokumentuak ere:"Aerosorgailu bakoitzaren ondoan, osagai handiak metatzeko plataforma bat garbituko da, bai eta tona askoko garabia muntatzeko eta operatzeko plataforma bat ere, aire-sorgailua altxatzeaz arduratzen dena. Plataforma horiek parkeko bideekiko paraleloan jartzen dira". Aurreikusitakoaren arabera 3.500 metro koadro inguru izan dezakete plataforma hauek.

Aerosorgailuak sor ditzaketen kalteen harira, Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak dokumentuan onartu du instalazioek hainbat hegazti espezie kaltetu ditzaketela. "Proposatutako aerosorgailu gehienak sentsibilitate handiko eremuetan daude, eta hegazti-faunaren gaineko eragina aurreikus daiteke" ,aitortu dute txostenean.

Gorobelera martxa

Arabako mendiak Aske urriaren 29an Gorobel mendilerrora egingo du ibilaldia. Izan ere, Gaztela Leongo gobernuak Mojon Alto mendiaren inguruan jarri nahi ditu aerosorgailuak.

Aiaraldea

Laudioko Udaltzaingoak Tubacexeko langile bati jarritako 3.000 euroko isunak epaitegian bukatuko du

Langileek liskarraren argazkia atera zuten, zeinean ikusten den hesiak lorategian daudela. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 21ean izango da Administrazio Epaitegian hitzordua. Alde batean Tubacexeko grebalarietako bat egongo da, eta bestean Laudioko Udaltzaingoa

Urriaren 1ean Tubacexeko greba bere azken egunean zegoen, hurrengoan sinatu baitzuten akordioa ELAk, CCOOk eta Independenteek enpresako zuzendaritzarekin. Egun lasaia izan behar zena, ordea, okertu egin zen bi grebalarirentzat.

A. O. urduñarra izan zen horietako bat eta horrela kontatzen du: "Hesi batzuk zeuden ibaitik gertu botata, eta nire kide batek eta biok altxatu eta mugitu genituen. Fabrika aurrean dagoen lorategi baten aurrean geundelarik, Udaltzaingoaren auto bat agertu eta, espaloira igo zen gure aurrean eta polizia bat jaitsi zen -antza oso ezaguna dena Laudion- esanez ergelak ginela, hori egiteagatik grebaren azken egunean". Adierazpen horien ostean, langilea hasi zen udaltzainarekin eztabaidatzen eta horrek identifikatzea eskatu zion: "Ez zidanez esan zertarako nahi zuen nire NANa, hasieran ez nion eman. Gero bai, eta ikusi nuen legez kanpoko gauza bat egiten ari zela berarekin: gure agiriei argazkiak egin zizkion bere telefonoarekin. Hori datuen babeserako legearen kontrakoa da". Hori guztia 09:00ak aldera gertatu zen eta 12:00etan, ELA eta LAB sindikatuen batzarrak hasi zirenean, A.O.-k ikusi zuen hesiak errepidean zeudela. Horren ondorioz, beharginak Udaltzaingoaren egoitzara jo zuen eztabaidatzeko agentearekin. "Hain larria bazen hori, nola zen posible hesiak trafikoa oztopatzen egotea liskarra gertatu eta ordu gutxira?", galdetzen du beharginak. Handik eta hilabete eskasera, azaroan, langileak isunaren berri izan zuen. Salaketan jasotzen denaren arabera, agenteak leporatzen zion errepidea oztopatzea hesiekin, beharginak erabat ukatzen duena: "Egin genuen argazkian ikus daiteke hesiak lorategian daudela, eta ez errepidean. Guk ez genituen errepidean jarri, akusazioa faltsua da, niretzat muntaia polizialaren itxura dauka". Ustezko arau haustea trafikoaren esparrukoa da eta Laudioko Udalak kudeatzen du. Guztira, isuna 3.000 eurokoa da. Hori ez ezik, ez identifikatzea, errespetu falta eta labana eramatea ere leporatu zion poliziak: "Pankartak jartzeko soka batzuk eta laban bat nuen eta legez kanpoko arma eramatearen akusazioa sartu zidan salaketan". Azken bi isun horiek, 700 eurokoa bakoitza, Ertzaintzak bideratu zituen Herritarren Segurtasunerako Legea -Mozal Legea bezala ezagutzen dena- erabilita.

Bai bere kabuz, zein sindikatuen bitartez, langileak alkatearen eta udaltzainburuaren ateak jo zituen eta azkenean lortu zuen eurekin biltzea, azaltzeko akusazioak ez zuela zerikusirik errealitatearekin. Dena den, udal arduradunek adierazi zioten isuna kentzea prebarikazioa izango litzatekeela eta ohiko prozedura jarraituko zutela. Horren aurrean, langileak bi helegite jarri ditu ELA sindikatuko abokatuaren bitartez eta kasuak Administrazio Epaitegian bukatuko du azaroaren 21ean. Egun horretan bi aldeek euren bertsioak aurkeztu beharko dituzte eta epaileak ebatzi beharko du nork duen arrazoia.

Basabide baten bidez lotu dituzte Arakaldo eta Arrankudiaga



Nerbioi ibai-ertzan zehar doa bidea. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Oinezko bide berri batek lotuko ditu aurrerantzean Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo, bi udalerrien artean "modu iraunkorrean eta motorrik gabe igarotzeko" aukera eskainiz herritarrei. Bidea eraikitzeko Petxabitik Urgoitiraino zihoan Andabide zaharra berreskuratu dute.

Ibilbideak 4 kilometroko luzera du Nerbioi ibai-ertzetik. "Jende guztiarentzat da egokia — adierazi dute Arrankudiaga-Zollo eta Arkaldoko Udaletatik —, adin eta egoera fisiko guztietako txangozaleentzat, familientzat, turismo aktiboa praktikatzen dutenenentzat, etab".

Obrak lau hilabetez luzatu dira eta orotara 119.717,40 euroko aurrekontua izan dute. Horietatik 80.000 euro Eusko Jaurlaritzak finantzatu ditu, Arakaldoko Udalari esleitutako diru-laguntza baten bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak diruz laguntzeko deialdiaren barruan. Gainerako 39.717,4 euroak Arakaldoko Udalak jarri ditu.

BMk bere gain hartu ditu Superberriakeko langile eta dendak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ostiralean gauzatu zuten BM supermerkatu katearen, Superberriakeko zuzendaritzaren eta langileen artean erdietsitako akordioa. Beharginak Uvescoren (BM katearen jabearen) eskuetara igaro dira, Laudio, Amurrio, Ugao eta Bilboko dendekin batera. Modu horretan, hemendik aurrera empresa horrek Araba eta Bizkaian duen lan hitzarmena aplikatuko zaie langileei.

Gauzak hala, amaiera eman diote irailean abiatutako gatazkari. Denda guztiak itxi eta langile guztiak kaleratzeko asmoa adierazi zuen orduan Superberriakeko zuzendaritzak. Langileek greba mugagabea abiatu zuten eta babes zabala jaso zuten herritarren partetik egun horietan egindako mobilizazioetan. Borrokak emaitzak izan zituen: Superberriakeko zuzendaritzak bertan behera utzi zuen Enplegua Erregulatzeko Espedientea, dendak eta langile guztiak Uvescori subrogatzea onartuta. Hori da atzo egin zutena.

Langileen ordezkariek azaldu dutenez, dendak itxita egongo dira ostegunera arte, trantsizioa burutzeko.

herriz herri

Laudio

San Juan erreka gaineko zubi berriko azken habea jarrita, obrek “mugarri garrantzitsu bat” erdietsi dutela azaldu dute

Ura Euskal Agentziak eta Laudioko Udalak agerraldi bateratua egin zuten. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Antonio Aiz Uraren Euskal Agentziako zuzendariak eta Ander Añibarro Laudioko alkateak San Juan erreka uholdeetatik babesteko obrak bisitatu zituzten iragan astean Azaldu dutenez, urte hasieran abiatutako lanen "mugarri" berri bat jarri zuten urriko lehenego astean. Izan ere, San Juan errekaren ibilguaren gainean Goikoplaza eta Nerboi kaleak lotuko dituen zubi berriko azken habea instalatu zuten. Antonio Aizek adierazi zuenez, aurreikusi baino zailtasun gehiago aurkitu dituzte lanek. Izan ere, gasa eta argindarra bezalako zerbitzu ugari desbideratu behar izan zituzten obrak hasterakoan. "Behin zubia amaituta dagoela, eta zerbitzu guztiak berriro ere bertatik bideratzen ditugunean, erreka bazterren naturalizazioa geratuko zaigu bakarrik lanak amaitutzat jotzeko" azpimarratu zuen Ura agentziako zuzendariak. Aurreikusi dute 2023ko otsailean bukatuko dituztela obrak.

Uholdeen aurkako babesa

Urte hasieran abiatutako lanen helburua San Juan erreka uholdeetatik babestea da. Orain arte uholde arrisku handiko eremua zen San Juan erreka Nerbioi ibairekin bat egiten zuen bokalea. Ibaiadarrak ubide ahokatu eta estali batetik egiten zuen bat Nerboiarekin, eta euriteetan buxatzeko erraztasun handiak zituen.

Hain zuzen ere, 2021eko azaroan jazo zen azken uholdea inguru horietan Ander Añibarrok gogorarazi duenez. Orduko hartan, euri jasa indartsuen ondorioz, gora egin zuten Nerbioi eta San Juan erreketako urek. "Udaltzaingoarekin koordinatutako erantzun azkarrari esker, San Juan errekaren gaineko aparkalekutik autoak ateratzea lortu genuen", gogorarazi zuen Añibarrok. "Behin lanak bukatuta, aurreikusi dezakegu ez dugula berriro ere gure burua horrelako egoera batean ikusiko", azpimarratu zuen alkateak.

Hori ekiditeko Zumalakarregi eta Goikoplaza kaleen arteko 150 metroko zatian egin dituzte jarduketak: San Juan errekaren zabalera handitu, Nerboi ibaiarekin zuen geometria hobetu eta bere ibilgua aire zabalera ireki dute.

Aizek azaldu zuenez, jarduketari esker errekaren ahalmen hidraulikoa handitu egin da: "Orain arte ur goraldien errepikatze-denbora 10 urtekoa zen inguruan. Lanen ostean errepikatze-denbora 100 urtekoa izango da ibilguan eta 500 urtekoa erreka ertzetan. Horrek nabarmen jaitsiko du uholde arriskua". Lanek, milioi bat euroko kostua izan dute guztira.

Lan gehiago

Behin San Juan errekako lanak amaituta, aurrera jarraituko dute Nerbioi ibaiaren uholdeen aurkako defentsarako proiektuarekin. Proiektuaren helburuak Nerbioi ibaiaren ahalmen hidraulikoa handitzea, eta ur-goraldien errepikatze denbora 100 urtekoa izatea dira; 438 metro m^3/s-ko emaria, hain zuzen ere. Horretarako, Kurajo pasabidearen eta Altzarrate zubiaren arteko ibaiaren ohearen sakonera handituko dute, metro bateko indusketa eginez.

Europar Batasuneko Next Generation funtsen bidez finantzatuko dute proiektua, 4,7 milioi euroko kostua izango duena. Aurreratu dutenez, lan horiek 17 hilabetez luzatuko dira.

Arabako Foru Aldundiak berretsi du 2024ko amaierara arte ez dela Lamuzako Kultura Etxe berritua irekiko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Foru Gobernu Kontseiluak gaur abiatu du esleipena Lamuzako Kultura Etxeko obrak amaitzeko. Guztira, 2.955.797 euroan egin du eta 18 hilabeteko epearekin. Aurreikuspenen arabera, prozedura bukatuko da udaberrian, obrak 2023ko uda baino lehen hasi eta 2024aren amaieran burutzeko.

Zaharberritze proiektuaren helburua da ia 4.000 metro koadroko eraikin horren funtzionaltasuna eta irisgarritasuna hobetzea. Besteak beste banaketa aldatuko dute, jauregiaren hegalak lotuko dituzten ibilbide berriekin.

Irisgarritasuna

Lanen xedeetako bat da eraikin guztiz irisgarri bihurtzea igogailu berri baten bidez, desnibelak kenduta, zoladura batzuen kota aldatuta, arrapala txikiak erabilita eta mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarri berriak eraikita. Proiektuak, gainera, ardatz-korridore handi bat aurreikusi du, jauregiaren mutur bat bestearekin lotzeko.

Halaber, baliozko elementuak eta apaingarriak zaharberrituko dituzte: zurezko eskailerak eta burdina forjatuzko barandak, estaldura zeramikoak, tximiniak, ate batzuk... Horrez gain, gelen zoladuretan, hormetan eta sabaietan, instalazio elektrikoetan, iturgintzan, segurtasunean eta berokugailuetan ere esku hartuko dute.

5 urtez itxita egongo da

2020an hasi ziren lanak Lamuzako Kultura Etxean eta horren ondorioz, 2019ko urrian eskatu zieten hainbat talde erabiltzaileri lekua uzteko. Hortaz, 5 urtez egongo da itxita eraikina.

Lehen fase horretan estalkiak eta fatxadak berritu zituzten, 2,8 milioi euroko aurrekontuarekin. Aurretik, Musika Etxearen eta Kasinoaren birgaitze integralari ekin zioten, 3 milioi eurorekin. Egun, udal liburutegia Musika Etxean kokatuta dago, esaterako.

Altuna y Uria enpresak eskaintza egin du Antzokia eraikitzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aurreko deialdia bertan behera utzi eta gero, Udalak eskaintza bat jaso du Laudio Antzokia eraikitzeko obren bigarren lehiaketan. Altuna y Uria izan da proposamena egin duen enpresa eta tokiko erakundeak azaldu du aztertzen ari direla ea baldintza guztiak betetzen dituen.

Horrela izanez gero, tokiko erakundeak lanak esleituko lizkioke eta obra urtea amaitu baino lehen hasiko litzateke. Gauzak horrela, eta aintzat hartuta 24 hilabeteko lanak direla, 2024an irekiko lituzke ateak.

Gogoratu beharra dago aurreko lehiaketan enpresek baxuegitzat jo zutela Laudioko Udalaren aurrekontua, 5.180.863,11 eurokoa.

Edonola ere, hori ez da izan Laudio Antzokiak izandako atzerapen bakarra. 2018an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak helegitea jarri zuen proiektuaren lehiaketan eta 2019an exekuzio proiektuaren kasuan beste helegite bat egon zen.

Laudio

Greba egingo dute Ferroko langileek azaroaren 3an, “enpresaren inmobilismoa salatu eta lan baldintzak hobetzeko”

Asteartean egindako elkarretaratzea. **LAB Aiara**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Mobilizatzen hasi dira Laudioko Ferro Perfomance Pigments Spain S.L. enpresako (antzinako Nubiola) langileak, “enpresaren inmobilismoa salatu eta lan baldintzak hobetzeko”. Aste honetan hasi dira protestak; elkarretaratzeak egiten ari dira enpresako sarrera nagusiaren aurrean. Azaroaren 3an, aldiz, 24 orduko paroa egingo dute. Enpresa Batzordeak azaldu duenez, langileen asanbladan adostutako lau puntu bidali zizkioten zuzendaritzari uda aurretik, “negoziatu ahal izateko”.

Hauek dira lau puntu horiek: KPI-aren igoera bermatzea, 4. txandako langileen egoerari erantzuna ematea, lanpostuen balorazioa eta IT egoeran primak. Baina, langileen ordezkariek salatu dutenez, oraindik ez dute erantzunik jaso. Euren ustez, “borondate falta” baino ez da zuzendaritzarena, empresa “egoera ekonomiko onean” dagoelako. “Horregatik, irabazi horiek ere langileon artean banatzeko ordua dela uste dugu”.

Laudioko tren geltokiko igogailuak martxan daude, herritarren kexei esker

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko tren geltokia berritzeko lanak duela urtebete baino gehiago hasi ziren eta azken asteetan, igogailu berriak eraikita egon arren, ez zeuden funtzionamenduan, pasa den astera arte. Ordura arte, geltokiko langileek azaltzen zuten "komunikazio sistema" instalatzea falta zela eta, horren ondorioz, ez zutela zerbitzurik ematen. Gauzak horrela, erabiltzaileen kexak ohikoak izan dira, baita erreklamazioak ere. Dena den, urriaren 9an garraio publikoa hartu zuten hainbat lagun (emakumezkoak gehienak, umeen orgatxoekin arazoak izan zituztenak, besteak beste) erreklamazioa jartzeko batu ziren. Agiria betetzean, konturatu ziren Renfe enpresako inprimakia zela betetzen zena. Hau da, garraio konpainiak berak kudeatzen zituela kexak. Ondorioz, Laudioko Udaltzaingoari deitu zioten eta Kontsumobideko inprimakiak exijitu zituzten. Talde ekintza horren ondorioz, Renfek egun gutxiren buruan jarri zuen martxan igogailua.

Okondo

Herriko ondarea berreskuratzeko kirikino-hesi eta zaldikoa eraikiko dituzte auzolanean

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Astelehenean 18:30ean elkartuko ziren Kultura Etxean Okondoko ondarea berreskuratzeko ekimenaren inguruan hitz egiteko. Iñaki Garcia Uribe etnografoa izanz en hiztorduko gidaria. Izan ere, zaldikoa eta kirikino-hesia berreskuratzea nahi dute. Hala adierazi du Naiara Otaola zinegotziak: "Obra berehala hasiko da. Bilera, jendeari nola egingo den azaltzeko egin da, eta parte hartzera animatzeko, politena jende askoren eta anitzen artean egitea baita".

Otaolak aurreratu duenez, eraikiko dutena izango da Okondoko kirikino-hesi bakarra, "eta hori egiten lehenengo herria gara, hori esan digu Iñaki Garcia adituak". Izan ere, kirikino-hesi ugari daude udalerrian, baina ez herrigunean. "Leku publiko batean kirikiñausia egiten den lehenbiziko herria izango da Okondon. Nagusiki, ezkutatuta eta mendian daude kirikiñausiak eta. Horregatik, auzolanean obra hau bultzatzen duen lehen herria izango gara estatuan", azpimarratu du EH Bilduko zinegotziak. Garaikoetxea parkearen alboan egongo da kokatua.

Bestalde, zaldikoa ere eraikiko dute udalerrian, haurreskolako parkearen alboan.

MANIFESTAZIO NAZIONALA
Euskal olatua
GELDI EZINA
azaroak 12 · Bilbo
17:30 · La Casilla
ehbildu

herriz herri

Orozko

Kontseiluko gurasoek testua idatzi eta zabaldu dute, herritarrek eskaera bideratu dezaten Orozkoko Udal Aurrekontuen proposamenetara. Gaia udalbatzan eztabaidatu zuten iragan astean.

Ikastetxean konponketak egiteko dirua bideratzea eskatu du Orozkoko Eskolako kontseiluak



Kontseiluko gurasoek testua idatzi eta zabaldu dute, herritarrek eskaera bideratu dezaten Orozkoko Udal Aurrekontuen proposamenetara. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Orozko Eskolako Kontseiluan aritzen diren gurasoek testua zabaldu zuten astelehenean bere blogean eta sare sozialetan. Ekimen horren bidez eskatu diete herritarrei udal aurrekontuen proposamenen bilketa fasean -urriaren 20ra arte dago indarrean- iradoki dezaten dirua bideratzea eskolan konponketak egitera.

Izan ere, gurasoen aburuz, mantenua ez da egokia ikastetxean eta hezetasunak eta gune kaltetuak daude, bereziki jantokian, non zuloa dagoen sabaian, baina beste gune batzuetan ere, adibidez, gimnasioan. Berez, gurasoek nabarmendu dute irakasle bat erori zela irailean baldosa apurtu baten erruz eta oraindik bajan dagoela.

Euren ustez, horrek segurtasun arazoak sortzen ditu eta arriskuan jartzen ditu umeak. Hori ez ezik, idazkiak jasotzen du jadanik osasun ikuskaritzaren bisita ere izan dutela, duela astebete ez dagoelako ur berorik ikastetxean.

Udalbatzan eztabaida

Asteartean bertan ohiko osoko bilkura egon zen Orozkon eta erregu eta galderen txandan EH Bilduk hainbat galdera egin zizkion alkateari aferari buruz eta kritikatu zuen eskolaren egoeraren berri izan zutela herritarren bitartez, udal hezkuntza batzordean ez baita informazio guztiarekin landu gaia.

Pedro Mari Intxaurraga alkateak luze hitz egin zuen eskolari buruz. Hasteko, aitortu zuen obra eta konponketa ugari egin behar direla oraindik, baina ukatu zuen utzikeriarekin jokatu izana. "Gauza batzuetan arrazoia dute, obra guztiak ez baitaude eginda, baina beste batzuetan ez. Adibidez, lan batzuk burutu ditugu eta beste batzuk ezin izan ditugu egin. Esaterako, jolastokiko hesi bat konpontzeko materialak ez dira heldu, nahiz eta duela lau hilabete eskatu genituen, lantegiak ez ditu bidali", azaldu dio gaur Aiaraldea Komunikabideari alkateak.

Bere iritziz, arazoaren muina da udalak ez duela bitarteko ekonomiko nahikorik aldi berean lan guztiak egiteko. Bestalde, ordezkariak ezintasuna agertu zuen zenbait arazo konpontzeko: "Jantokiko itoginean hiru aldiz esku hartu dugu brigadaren bitartez, baina ez dira gai izan arazoaren iturburua topatzeko. Guk lehenesten dugu gure bitartekoekin egitea konponketak eta ez da posible izan, kontratazioa bideratu beharko dugu".

Hain zuzen, Adieko buruak ziurtatu du azkenaldian 50.000 euroko inbertsioa egin dela ikastetxean eta alkateak berak aipatu zion EH Bilduri ez dela diru asko, ikastetxean dagoen egoera aintzat harturik.

Horrez gain, kontseiluko gurasoei leporatu zien nahasmena sortzea, testuan agertzen diren zenbait obra egin direlako jadanik eta beste batzuk bidean daudelako: "Psikomotrizitate gelan linoleoa aldatu zen udan eta beste gela batzuetan egingo da Gabonetan, udan ez baikenuen denbora nahikorik izan dena bukatzeko. Jantokiko baldosa apurtuak asteburu honetan bertan ordezkatuko dira".

Halaber, nahasmen horren barruan, alkateak argudiatu zuen jantokiko mahaiak aldatzea ez dela tokiko eskumena, baizik eta Eusko Jaurlaritzarena. Ur beroaren faltaren harira, Intxaurragak azaldu zuen bigarren aldiz matxuratu dela berogailua: "Lehenengo aldian gure bitartekoekin konpondu genuen, baina orain hori ez da nahikoa eta ordezkatu behar dugu. Horregatik idatzi du osasun ikuskariak txostena".

Hurrengo Udalbatza

Erregu eta galderen bigarren txandan EH Bilduk esan zion alkateari eskolako zuzendaritzak emandako 18 kalteen zerrendari buruzko informazioaren gaineko galdera ez ziola erantzun eta Intxaurragak konpromisoa hartu zuen hurrengo udalbatzan lan horiei guztiei buruz mintzatzeko banan banan "dokumentazio guztiarekin".

EH Bilduren iritzia

EH Bilduk prentsa oharra zabaldu du gaur bertan bere iritzia plazaratzeko eta azpimarratu du, bere ustez, udal gobernuaren utzikeriaren emaitza dela egungo egoera. Alde batetik, argudiatu du konponketa zerrenda 2022ko urtarriletik duela udalak.

Bestetik, koalizioak aldarrikatu du obrak kontratatzeko emergentziazko prozedura baliatu daitekeela, iaz 260 kontratazio egin zirelako horrela: "Egoera hau ez da baliabide ekonomikoen eta inbertsio faltaren eraginez sortu, eskolaren egoera Adieren kudeaketaren ondorio zuzena dela uste du EH Bilduk".

Artziniega

Erretes Tuterako San Roke ermita ez dute 2022an konponduko, babes ekonomiko faltagatik

Ermita konpontzeko dirulaguntzari uko egin dio Udalak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artziniegako Udalak ez du aurten Erretes Tuterako San Rokeko ermita atontzerik izango. Joseba Vivanco alkateak sare sozialetan aipatu duenez, 21.240,64€ esleitu dizkiete "partidako aurrekontu agorpenagatik" Arabako Foru Aldundian, nahiz eta ebazpenean 67.230,84€ aitortu.

Alkateak azpimarratu du proiektuak %72ko dirulaguntza eskuratu behar zuela, baina baldintza ekonomiko hauetan ezin diotela erronkari heldu, "Udalak 72.000€ inguru jarri beharko lituzkeelako, eta obra 2022ko abenduaren 30erako bukatuta egon beharko litzatekeelako". Dena den, alkateak nabarmendu du, mota honetako jardueretarako ez direla aski Arabako Foru Aldundiko fondoak, "eta XVII. mendeko ermita kontserbatzeko modua" aztertuko dutela etorkizunari begira: "Erabilera herriko jendearekin zehaztuko dugu behin azpiegitura berreskuratuta".

50 urte barru irekiko den denbora kutxan ekarpenak egiteko aukera dago, Artziniegako hiribilduaren 800. urteurrenerako

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Artziniegak urte osoa darama ospatzen duela 750 urte Alfontso X. Jakitunak Herri Gutuna eman ziola. Edonola ere, efemerideari lotutako ekintzak amaitzen ari dira. Hain zuzen, azaroaren 2an izango da azkena, egun horretan eman baitzion erregeak dokumentua herriari.

Hori dela medio, Artziniegako Udala urteurren egitasmoaren azken txanpa prestatzen ari da, eta hori ez ezik, etorkizunera begira ere jarri da. Hori dela eta, denbora kutxa prestatzen ari dira, 50 urte barru irekitzeko. Hau da, hiribilduaren aitortzaren 800. urteurrenean.

Kutxa horren barruan, tokiko erakundeak herritarren ekarpenak jaso nahi ditu. Horretarako epea urriaren 7an hasiko da eta azaroaren 2an bukatu. Artziniegarrek euren mezuak islatu ditzakete A4 orri batean, gehienez, idatzitako testuan, marrazki batean edo argazki batean.

Behin epea iraungita. Udalak kutxa zigilatuko du eta 2072. urtera arte zainduko du, urte horretako azaroaren 2an irekitzeko.

Aiara

Udalerrian eskaintzen ez diren musika eta dantza jarduerak diruz laguntzeko epea ireki dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiarako Udalak zabaldu zuen astelehenean deialdia herrian bertan eskaintzen ez diren musika eta dantza jarduerak diruz laguntzeko. Horrela, iazko irailetik aurtengo ekainera arte ekintza mota horiek egin dituztenek, aukera izango dute babes ekonomikoa jasotzeko. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutakoak izan beharko dira.

Guztira, 6.000 euro bideratuko ditu tokiko erakundeak eginkizun horretara eta, gehienez, beste herri horretan erroldatuta ez daudenei tokiko erakundeak kobratzen dien kopuru gehigarria ordainduko du.

Aiararrek zenbait baldintza bete beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko; gutxienez azken sei hilabeteetan udalerrian erroldatuta egotea edota jardueraren %80ko saioetan parte hartu izana.

Dokumentazio guztia aurkezteko azken eguna azaroaren 2a izango da eta udal erregistroan laga beharko da eskaera orria.

argazki erreportajea

Ehunka lagunek parte hartu zuten iragan urriaren 16an Asasamek antolaturiko Aiaraldeko Buru osasunaren aldeko martxan. Goizeko hamarretan abiatu ziren parte hartzaileak Laudio eta Amurrioko plazetatik, eta Luiaondon batu ziren gero.

Ehunka lagun bildu ditu Buru osasunaren aldeko martxak

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Asasamek antolatu zuen ekimena, Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan, urteroko dinamikari jarraiki. Aurten, haur eta nerabeen buru osasunean jarri du begirada Aiaraldeko elkarteak, horri lotutako kanpaina eginez.

Haur eta gazteak erdigunean

"Tradizioz erabat ahaztua, eta, batzuetan gutxietsia" den haur eta gazteen buru osasunean jarri nahi izan du arreta ASASAMek aurtengo Nazioarteko Egunean. Horretarako, buru osasunaren zaintza eta babesa txikitatik landu beharra azpimarratu dute, eta, erakunde publikoak eta eragileak interpelatzeaz gain, haurrak dituzten familiengan eta hezkuntza-komunitatearengan ere jarri dute pertsona ororen buru osasunari erreparatzeko ardura.

"Baliabide ekonomikorik eta giza baliabiderik ez dagoenez, buru osasunari eskaintzen zaion arreta ez da nahikoa, non eta haur eta gazteen buru osasuneko arazoak areagotu egiten ari diren garai honetan", azaldu du Arbaizagoitiak gaurko aurkezpenean. Datuak ere mahaigaineratu dituzte: Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, munduan 10 eta 19 urte bitarteko zazpi gaztetik batek dauka buruko nahasmenduren bat. Azaldu dutenez, gainera, pandemiak, "pandemiak lehendik zeuden arazoak larriagotu ditu".

Gazteen buru osasunean eragiten duten faktoreak zerrendatu dituzte: lana lortzeko zailtasunak, genero desberdintasunak, sexu-abusuak haurtzaroan, eskola jazarpena, ciberbullyinga, mendekotasuna edota suizidio-ideiak.

babestutako edukia

-PUBLIZITATEA-

THE POWER REVOLUTION

POWERRA NAHI BADUZU

ESKURATU SMARTWATCH BAT EDO ENTZUNGAILUAK

IZAKINAK AMAITU ARTE (3.000 UNITATE ARTIKULU BAKOITZEKO) EDO 23/12/31

300 EUROKO INBERTSIO FONDO BAT ETA KUOTA-PLAN BAT KONTRATATZEAGATIK*

Finantza-merkatuetako inbertsio orok arriskua dakar, inbertitutako kapitala galtzeko edo errentagarritasunik ez izateko arriskua barne.

* 18 eta 35 urte bitarteko pertsona fisikoei zuzendutako kanpaina, gutxienez 300 €-ko inbertsio-fondoa eta hilean 25 €-ko kuota kontratatzen badute. Egindako inbertsioa urtebetez mantendu beharra dago. Sustapena Kutxabanken inbertsio-fondoak dituzten beste pizgarri batzuei ezin zaio metatu. Opariak atxikipenari lotutako kapital higigarriaren errendimendua du, eta Kutxabankek aplikatuko du, zerga-araudiaren arabera. Atxikipen hori ez zaio bezeroari jasanaraziko. Bezeroak bere PFEZaren aurrezkiaren zerga-oinarrian aitortu beharko du jasotako pizgarria gehi jasanarazi gabeko atxikipena, eta, bestalde, atxikipen hori kentzeko eskubidea izango du. Kutxabankek merkaturatutako inbertsio-fondo bakoitzaren arrisku-maila eta informazioa Inbertsio Fondo bakoitzaren Inbertsiogilearentzako Informazio-liburuxkan edo Funtsezko Datuen Dokumentuan daude zehaztuta, www.kutxabank.es eta www.cnmv.es webguneetan. Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: 5226 liburukia, 0 liburua, BI 58729 orria, 1 folioa, 1. Inskripzioa.

KUTXABANK KORNER

kutxabankkorner.eus

erreportajea

Ziberrerasoak, guztion arrisku eta arazo

Aiaraldea Komunikabidearen Youtube kanala lapurtu eta desagerrarazi zuten iragan irailaren 28an, kriptotxanponen edukiak plazaratzeagatik. **Aiaraldea.eus**

Aiaraldea Komunikabideaz gain, beste zenbait hedabide eta komunikazio proiektu erasotu dituzte azkenaldian hackeatzaileek. Zer egin daiteke, ordea, arriskua ekiditeko edo murrizteko?

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Sare sozialetako kontu lapurretak, blokeoak... eguneroko ogi dira espazio digitaletako erasoak. Bestelako komunikazio tresnetan ere areagotu da joera. Eusko Jaurlaritzaren esanetan, %80 egin dute gora delitu informatikoek azken lau urteetan. "Delitu horien %90, gainera, iruzurrak ei dira", adierazi du Joxe Rojas adituak Teknopata.eus webgunean.

Aiaraldea Komunikabideari, esaterako, irailaren 28an lapurtu zioten Facebook kontua, eta Youtubeko eduki guztiak blokeatuta dauzka egun enpresa teknologiko multinazionalak, arauak urratu izanagatik. Zehazki, kriptotxanponen inguruko spam edo "publizitate erasokorra" sartu zuten komunikabidearen kanalean; eta publizitate hori Youtubeko arauen kontra doala-eta, 2010.urteaz geroztik Aiaraldea Komunikabideak ekoitzitako ehunka bideo blokeatuta edo "ez erabilgarri" daude uneotan. Facebook kontua ere lapurtu dute, pasahitzak berreskuratzeko datuak aldatuta. Alabaina, Aiaraldea Gaur orria izanik (eta kontua lapurtzeko erabilitako posta helbidearekin sortuta ez zegoenez) albo kalteak txikiagoak izan dira Facebooken Aiaraldea hedabidearentzat. Youtubeko ikus-entzunezkoak berriro ikusgai jartzeko helegitea ipini dio Aiaraldea Komunikabideak enpresari, baina erantzunaren zain dago oraindik. Bien bitartean, behin-behineko kanal batean plazaratuko dira hemendik aurrera ekoitzitako ikus-entzunezkoak. Aiaraldea Komunikabidea izango da hackeatzeak iraun bitartean baliatuko den behin-behineko Youtube kontua.

Pantailak Euskaraz ekimenaren Twitter kontuan ere kriptotxanponen inguruko mezuak eta bideoak plazaratu zizkieten urriaren 11n; eta horrenbestez, kontuak blokeatu dizkiete arrazoi beragatik. "Konturatu bezain laster saio guztiak gailu denetan itxi eta pasahitzak aldatu genituen. Arazoa konponduta zegoela uste genuenean, urriaren 14an, Twitterrek bertan behera utzi zuen gure kontua arau hausteagatik. Oraindik ez dugu berreskuratu. Hainbat eskaera egin dizkiogu Twitterri, eta sareetan ozen salatu dugu", adierazi diote Aiaraldea Komunikabideari.

Hamaika Telebistako Maddi Mochales digitalizazio eta edizio buruak ere gogoan du udan jasandako identitate lapurreta: "Aldaketa bakarra izenean '_' ikurra gehitu zutela zen: erabiltzailearen begietara, ia ezberdindu ezineko aldea. Identitatea lapurtu ziguten erabiltzaileen datuak lortzeko". Kriptotxanponei buruzko edukiak zabaltzen hasi ziren kontu horretatik, eta konturatu orduko moztu zuten bidea: "Kontu hori ez segitzeko eta mezua zabaltzen laguntzeko eskatu genien jarraitzaileei. Egia da komunitateak segituan erantzun eta arazoaren berri hedatzen lagundu zigula".

2010.urteaz geroztik Aiaraldea Komunikabideak ekoitzitako ehunka bideo blokeatuta edo "ez erabilgarri" daude uneotan

Argia komunikabideari Twitter eta Facebooken ingelesezko mezu automatikoak argitaratu zizkieten ordenagailu batean sartutako birus bat oinarri: "Mezuak ezabatu, plataforma horien pasahitzak aldatu eta arazoa konpondu genuen. Lan gehiago eman zigun Youtubeko kanala kudeatzeko gmail kontuak: Googlek pasahitza aldatzeko daukan sistema automatizatuen bitartez guk ezin izan genuen pasahitza berreskuratu". Argiako Axier Lopezen hitzetan, aspaldi sortutako helbidea izanik, "gakoak eguneratzeko jarritako telefono zenbakia aspaldikoa zen eta ez zegoen erabilgarri". Alabaina, Googlen langile ezagun baten bidez lortu

zuten Youtubeko kanal hori eurena zela erakustea eta jabetza eskuratzea.

Infosareaneko Ion Aldanondok ere ez du ahaztu 28 kanalari (Tolosaldeko telebista) pasatakoa: “Orain hiru urte 28 Kanala lapurtu ziguten, eurena egin zuten kontua eta genituen jarraitzaile zein jarraitzen genituen kontaktu guztiak galdu genituen. Ez zen modurik egon berreskuratzeko. Kontu berria sortu behar izan genuen, zerotik hasita”.

Topaguneari ere Euskaraldiko kontua kendu zioten aurreko edizioan, eta Halabediri Youtubeko kanala itxi zioten duela zenbait urte. Gutxienez, beraz, zazpi dira halako erasoak aitortu dituzten euskarazko komunikabideak edo komunikazio proiektuak.

Arriskua ekiditeko zer egin?

Urtzi Odriozola Codesintaxeko webgune garatzailea argi mintzo da: “Ziberrerasoen atzean motibo asko daude: bada afizio gisa zaurgarritasun teknologikoa topatzea gogoko duen jendea; eta beste batzuk dirua eskatzeko erabiltzen dute, extortsio gisa”. Zerbitzuen ukapenak, birusak, arau urraketen blokeoak... Geroz eta kasu gehiago daude eraso digitaletan ere, “jakintza izanez gero, mila aukera daude”. Irekitako wifietan ere datu eta informazio guztia

Gutxienez, zazpi dira halako erasoak aitortu dituzten euskarazko komunikabideak edo komunikazio proiektuak

pilatzen da segundo gutxitan, esaterako.

Zuloak sare guztiek dituzte, eta hortaz, ez da komeni pasahitz berdinak izatea toki guztietan, “zenbakiak, maiuskulak, minuskulak, zeinu eta ikurrak tartekatu; eta aldiro aldatu. Pasahitzen zaintzarako aplikazioak ere badaude, informazio hori gorde eta eguneraketa gogorarazteko”. Zaintza eta ezagutza behar ditu mantenuak, Odriozolaren esanetan: “Guk, esaterako, Enpass erabiltzen dugu, gakoak pasahitzekin babesteko. Azkenaldian bi faktoretako egiaztatzea ari gara jartzen, sarbide gakoaz gain. Giltza bat bezalakoa da, eta mugikor zenbakian bakarrik dauden 6 zenbakiko digitoak eskatzen dizkizu aplikazioak. Norbaitek zure pasahitza badu, bigarren gakoa behar du”. Gaur egun, sare sozial denek dute aukera hori, gainera: Twitterrek, Facebookek... “Hargatik, jende guztiari aplikatzeko gomendatuko nioke. Behin erasoa jasanda, salduta zaude. Salatu bakarrik egin dezakezu. Aurretik hartu behar dira neurriak, ondoriorik ez izateko”. Prebentzioan dago gakoa, beraz.

Noren esku uzten dugu gure pasahitz eta informazio oro? “Argi dago software libreko eta hemen egindako sistema eragileak eta aplikazioak erabiliko bagenitu, segurtasun arazo gutxiago izango genituzkela. Ez dakigu gertatutakoa eraso aleatorioa edo berariaz guri egindakoa izan den. Idazten eta elkarbanatzen dugun guztia edonoren esku egon daiteke”, kontatu du Ibon Iza Pantailak Euskaraz kasua ardatz.

Babesteko zirrikituak

Sare sozialetako segurtasuna handitzeko pautez galdetuta, pasahitzak maiz aldatzea ezinbestekotzat jotzen du Maddi Mochales Hamaikako kideak. Eragile edo hedabideon kasuan orrialdeak erabiltzea profilen ordez ere proposatu du, “eta orriak kudeatzeko profil ezberdinak baimentzea, hackeatzerik egotekotan beste erabiltzaile eskumendunekin azkar erreakzionatu eta blokeatzeko” aukera izateko. Hamaika Telebistaren kasuan eduki guztiak, zerbitzari propioan kokatzea erabaki zuten: “Giga eta artxibo mordoa eta eduki digital pila sortzen ditugu egunero”. Inbertsio ekonomikoaren jakitun, bestelako alternatibak ere aipatu ditu: “Badira open source plataformak ere, bertan edukiaren kontrola handiagoa da norberaren esku geratzen baita”.

Argiako Axier Lopezentzat, multinazionalekiko menpekotasunaren ondorioak handiak dira: ”Horrelako prozesuen aurrean umezurtz uzten zaitu. Horrekin ez dut esan nahi Facebook Twitter, Youtube edo jendearen gehiengoak erabiltzen dituen plataformetan egon behar ez dugunik; menpekotasuna txikitzen joan behar dugula baizik”. Bide horretan doako alternatiba libreak mahaigaineratu ditu Lopezek: “Adibidez, Peertuben argitaratzen ditugu bideo guztiak. Argiaren gmail kontuaren kontrola galdu genuen hartan, Google Analitycs ere kendu ziguten, baina ordurako Matomo erabiltzen genuenez, ez zigun estatistiken kontrola eragotzi, datu horiek gure zerbitzarietan zeudelako, eta ez AEBn Googleko ordenagailu batean”. "Tresnak ez dira neutroak", nabarmendu du. “Doako zerbitzuetan geu gara produktua. Gure informazioa doan eskaintzen diegu multinazional pribatuei, eta kontrola galtzeko arriskua askoz handiagoa da haien mende utziz gero”. Soluzioa burujabetza teknologikotik etor daiteke: “Gutxienez saiatu beharko ginateke guk kontrolatutako beste leku seguruetan informazio guztia izaten, eta ahal dela tresna libreak erabiltzen”.

Zero kilometroko kontzeptua landu beharko genuke Ion Aldonondoren iritziz ere. “Gure zerbitzari eta aplikazioak landu, etxekoa etxekotik kontsumitzeko; eta gure informazioa non dagoen zehatz jakin, zaindu eta berreskuratzeko aukera izateko”.

Bien bitartean, bakoitzak bere identitate eta ingurune digitalak babesten jarraitu beharko du, ziberrerasoen olatuak ez dezan kontu gehiago harrapa.

erreportajea

Ilargi tabernako errentaren auzia, Espainiako Auzitegi Gorenera

Pili Carrillo Markezek 35 urte damaratza Ilargi tabernako barran. **Aiaraldea.eus**

Baliteke Laudioko Ilargi taberna mitikoak ateak itxi behar izatea hemendik hilabete gutxira. Jabego asko dituen familia batena da lokala, eta Pili Carrillo Markez tabernaria bota nahi dute, 35 urtez errenta ordaintzen aritu ostean.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Iragan apirilean Pili Carrillo Markezek 35 urte bete zituen Ilargi taberna kudeatzen. Bertan jubilatzea da tabernari beteranoaren asmoa, baina ez daki egin ahalko duen, lokalaren jabeek kanporatu egin nahi dutelako. Epaitegi batetik bestera egin du salto auziak, eta Espainiako Auzitegi Gorenean dago une honetan, ebazpenaren zain.

Ilargiko terrazan bildu gara Carrillorekin. Berak ondo oroitzen du noiz eta nola hartu zuen Laudioko Batzalarrin kaleko lokala: "1977ko apirilaren 13an izan zen. Taberna, berez, 1960. hamarkadan jarri zen martxan, 'Iturri' izenarekin. Negozioa eskualdatu nahi zuen aurreko jabeak, eta berarekin sinatu nuen akordioa, lokalaren jabeen oniritziarekin".

Inbertsio ekonomiko handia egin behar izan zuen emakumeak. "Eskualdaketagatik 7,5 milioi pezeta ordaindu nituen. Negozioa aurretik zuenak eraman zuen diru gehiena, eta %10 lokalaren jabeak eraman zuen, 750.000 pezeta guztira".

Tabernariaren arabera, "astakeria" izan zen hori, "dirutza". "Pentsa, nik handik 10 urtera pisua erosi nuen kale berean eta 9 milioi kostatu zitzaizkidan". Gastuak ez ziren horretara mugatu. Beste 1,5 milioi pezeta inbertitu behar izan zituen Carrillok lokala egokitzeko, altzari gehienak "hondatuta" zeudelako. Hori eginda hasi zen martxan negozio berria. "Langile taberna" bat zen garai hartan Ilargi, tabernariak oroitzen duenez. "Oinezko kalea zen honakoa, eta garai hartan jada existitzen ziren egungo eraikin eta lokal guztiak".

Errenta igoera, urtez urte

Laudioko "jabe handi" batzuk dira Ilargiko lokalaren jabeak, Carrillok zehaztu duenez: "Madrilen bizi den familia bat da, herrian ere senideak dituzten arren. Jende boteretsua da, diruduna. Lursailak, etxeak, pisuak... denetarik daukate".

Espainiako Auzitegi Gorenean dago une honetan Ilargi tabernako errentaren auzia, ebazpenaren zain

1977. hamarkadan ere familia berarena zen lokala, eta 17.000 euroko errenta ezarri zioten tabernari hasi berriari. "Diru nahikotxo zen garai hartan eta, gainera, igoera ezarri zidaten aurreko negozioak ordaintzen zuenarekiko".

Errenta igotzen joan zen urtez urte, Kontsumo Prezio Indizearen (KPI) arabera, "kontratuak hala zehazten baitzuen". Hala ere, igoera hori ezin da alderatu higiezinen prezioek azken hamarkadetan izandako

gorakadekin. Carrilloren arabera, Laudion taberna edo denda bat ireki nahi duen pertsona batek 1.500 eta 2.000 euro artean ordaindu beharko dizkio hilero lokalaren jabeari. Ilargiren jabeak, aldiz, 274 euroko alokairua ordaintzen du gaur egun, bere kontratua duela 35 urtekoa delako.

Madrilen bizi diren "jabe handi" batzuk dira Ilargiko lokalaren jabeak, Carrillok zehaztu duenez. Beste hainbat jabetza dituzte herrian eta estatuko beste toki batzuetan

Kaleratze agindua

"Arrazoi ekonomiko" hori dago bera kaleratu nahi izatearen atzean, Carrilloren aburuz.

Duela hamar urte hasi zen gatazka. "Duela hamar urte bidali zidan jabeak lehen gutuna, esanez 25 urte bete nituela tabernan eta joan behar nuela. Nik abokatu batengana jo nuen orduan, eta esan zidan ez nuela ezer egin behar. Kontratua 25 urterako zen, beste 5 urteko luzapenarekin". Gauzak hala, handik bost urtera jaso zuen bigarren gutuna, abuztuan. "Azarora arte ematen zidaten nire gauzak hartu eta joateko epea. Orduan hasi zen gatazka, ez nintzelako joan".

Jabeak salaketa jarri zuen, eta epaitegian amaitu zuen auziak. "Amurrioko epaitegian egin zena nik irabazi nuen, eta Gasteizen egin zena galdu egin nuen. Gauzak hala, Espainiako Auzitegi Gorenean gaude orain", azaldu du tabernariak. "Amurriokoa irabazi nuenean tratua egitea proposatu zidaten, errenta 'gaur egungo garaietara' egokitzeko. Ez zidaten diru-kopururik iradoki, baina nik ezetz esan nien. Argi nuen une horretan, epaiketa eta abokatuekin hasita, jada ez nuela akordiorik egingo. Joan behar banaiz joango naiz eta geratu behar banaiz geratuko naiz".

Eskualdaketa VS subrogazioa

1977ean sinatutako akordiaoren gaineko desadostasun juridiko bat dago auziaren epizentroan, Carriloren arabera. "Jabearen arabera, nik taberna hartu nuenean ez zidaten eskualdatu, subrogatu baizik. Baina eskualdaketa bat izan zen. Subrogazioa beti egiten zaio gertuko pertsona bati, senide zuzen bati. Nik, adibidez, nire alabari subrogatu ahalko nioke. Baina nik egin nuena eskualdaketa izan zen. Ez nuen aurreko jabeekin zerikusirik eta, esan bezala, 7,5 milioi pezeta ordaindu behar izan nizkien".

Hor dago koxka, eta hori da Espainiako Auzitegi Gorenean ebatzi beharko dena. "Eskualdaketa izan zela ebatziko balitz, ni jubilatu arte geratu ahalko nintzateke tabernan eta orduan aukera izango nuke nire alabari subrogatzeko. Nire lanpostuan jubilatzeko aukera emango lidake horrek, hori da nahi dudana, horregatik nago borrokan".

Izan ere, lokalaren jabeek eskuak nahiko lotuta dituzte. Ezin dute Carrillo bota ezta errenta aldatu, kontratua Boyer legea baino lehen sinatu zelako. Miguel Boyer ministroak garatu zuen lege hori, 1985. urtean. Ordura arte, alokairuen kontratuek ez zuten iraunaldi finkorik. "Funtsean, kontratuak indarrean mantendu zitezkeen errenta ordaintzen zuenak nahi arte", azaldu du Carrillok. "Baina lege berriak amaiera jarri zion horri, kontratuek iraupen zehatz bat izan behar zutelako".

Laudion taberna edo denda bat ireki nahi duen pertsona batek 1.500 eta 2.000 euro artean ordaindu beharko ditu hilero errentan, Carrilloren esanetan. Ilargik, aldiz, 274 euroko errenta du, bere kontratua duela 35 urtekoa delako

Ez da kasu bakarra

Azken urteetan beste hainbat taberna mitikok itxi dituzte ateak Laudion, antzeko arrazoiak medio. Ilargitik metro eskasetara daude bi adibide esanguratsu: El Blanco eta La Viña. "Nire egoera berdinean zeuden pertsonak ziren. Baina lege aldaketarekin errentak igo egin ziren, eta biek itxi zuten, ikusten zutelako ateratzen zuten diruarekin ez ziela merezi. Zer gertatu da ordutik hona? La Viña itxita dago eta El Blanco esku askotatik igaro da oso denbora gutxian. Zergatik? Diruak ez duelako ematen".

Carrillok argi du gaur egungo errentak "gehiegizkoak" direla: "Establezimendu berriak irekitzen dira egun batean eta hurrengoan ixten dira. Zergatik? Gehiegizko errentak ordaindu behar direlako".

Horren aurrean, bere errenta baxua defendatu du: "Behin baino gehiagotan etorri dira jabeak esanez gutxi ordaintzen nuela eta errenta igo beharko litzatekeela. Zergatik? Nire kontratuak esaten du hemen jubilatzeko eskubidea dudala. Zergatik igo beharko nuke are gehiago jada Kontsumorako Prezioaren Indizearen arabera igotzen den zerbait? Alokairuan sartu nintzenean nik asko ordaintzen nuen, eta are gehiago igo zidaten errenta. Orain,

1977tik hona bi obra handi egin ditu Pili Carrillo Markezek tabernan, biak bere poltsikotik ordainduta. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

apur bat mesede egiten didanean, zergatik handitu beharko nuke?”.

Era berean, ostalariak nabarmendu du establezimenduaren mantenua bere gain egon dela hiru hamarkadetan: “Ez zait bidezkoa iruditzen kontuan ez izatea lokal honetan egin dudan guztia. Kasu batzuetan, komunitate zenbait gastu ordaindu ditut, niri ez zegozkidanak. Egin ditudan inbertsio guztiak hemen geratuko lirateke nik alde egin beharko banu”.

Ilargirena ez da kasu bakarra, Laudioko beste hainbat taberna mitikok itxi dituzte ateak azken hamarkadetan errenten igoeren ondorioz

Hiru hamarkada hauetan bi esku-hartze handi egin ditu Carrillok. “Bat hasieran, sartu nintzenean. 1,5 milioi pezeta gastatu nituen taberna konpontzeko. Orain dela sei-zazpi urte, aldiz, beste 30.000 euro baliatu ditut lokalean. Zergatik? Ba nire negozioa delako eta egoera onean egon behar dela uste dudalako. Lokalaren jabeak, kasu hauetan, ez du ezertxo ere ordaintzen. Nire aukera izan da”.

Carrillok ez daki, kasu hipotetiko batean, zenbateko igoera proposatuko lioketen, baina argi du hirukoiztu egin nahiko lioketela. “Ez naute epaiketara eramaten 50 eurotan igotzeko”.

Horri lotuta, ondorio latza plazaratu du 35 urteko ibilbidedun ostalariak: “Nik Ilargigatik ordaintzen dudana baino hiru aldiz gehiago ordaindu beharko banu, alde egingo nuke. 35 metro karratuko lokal bat da hau, kokalekuak ematen dio duen balio apurra. Argi daukat: Ilargi hiltzen bada, betirako izango da, ez du beste inork hartuko”.

“40 urteko tira-biren ostean itxi behar izan genituen La Viñako ateak”

Nandi Atxa Gorostiagak hamarkada luzez kudeatu zuen La Viña taberna. Egun, hutsik dago establezimendua. **Aiaraldea.eus**

Ilargi tabernarena ez da kasu isolatu bat. Azken urteetan Laudioko hainbat establezimenduk itxi behar izan dituzte ateak errenten bat-bateko gorakadengatik. La Viña da horietako bat.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Laudioko taberna mitikoenetako bat izan zen La Viña. 1960. hamarkadan ireki zen lehenbiziko aldiz, eta 1971ko urtarrilean hartu zuten Nandi Atxa Gorostiagaren gurasoek. Berak hamar urte zituen orduan, baina ondo oroitzen ditu garai hartan bizitakoak. “Otsailean ireki genituen ateak. Nire gurasoek 100.000 pezeta ordaindu behar izan zizkioten aurreko jabeari eskualdaketagatik, eta lokalaren jabeak 4.000 pezetako errenta ezarri zien. Bazen dirua garai hartan”.

Atxak azaldu duenez, 1971an sinatutako kontratuak errentaren igoera progresibo bat proposatzen zuen: “Hirugarren urtean hilero 4.500 pezeta ordaintzera pasa ginen, eta hortik aurrera Kontsumo Prezio Indizearen (KPI) araberakoa izango zen igoera”. Hirugarren urtea amaitzear zegoenean lokalaren jabearen bisita izan zuten. Hala oroitzen du Atxak: “Ni tabernan nengoen laguntzaile moduan, eta lokalaren jabeak nire aitari esan zion errenta igo egingo zela. Nire aitak esan zion ez zuela uste hori horrela izan behar zuenik, kontratuan beste gauza bat zehazten zelako. Jabea sumindu egin zen orduan, eta zigarro piztu bat bota zion nire aitari”.

Hor hasi zen jazarpena, tabernariaren aburuz: “Epaiketetan murgildu gintuzten, gu botatzeko helburuarekin. Uko egiten zioten errentaren ordainketa jasotzeari, eta gero argudiatzen zuten ez genuela ordaindu nahi. Baina guk bagenekien zer egin behar genuen: Correosera joaten ginen eta bertatik bidaltzen genuen dirua, eta frogagiriak gordetzen genituen, epaiketetan aurkezteko, baina berdin zitzaien”. Atxak ez du oroitzen zenbat aldiz joan behar izan ziren epaitegietara, “10-15 inguru izango ziren, eta ez ziren gehiago izan gure abokatuak esaten zielako ez izateko ergelak, bazekitela ez zutela irabaziko”.

Atxaren gurasoak saiatu ziren lokala erosten: “Aitak lokalak balio zuen bikoitza eskaini zion jabeari, baina honek uko egin zion. Nahikoa desgaste dakar tabernako bizitzak, epaiketetan murgilduta egoteko”.

1995. urtean hartu zuen Nandik bere gurasoen lekukoa tabernan. Urte garrantzitsua izan zen hura, orduan sartu baitzen indarrean hiri-errentamenduen lege berria. “Lege horrek 20 urteko iraungitze epea jartzen zien nirea bezalako negozio batzuen alokairu-kontratuei. Behin epe hori iraungita, jabeek eskumena zuten lokalei nahi zuten prezioa jartzeko”, azaldu du tabernariak. “Lege aldaketa hori baino lehen, kontratuak hiru belaunaldiz mantendu zitezkeen: nire aitak kontratu bat sinatzen bazuen nik kontratu hori mantendu nezakeen, eta nire se-

erreportajea

me-alabek ere mantendu ahalko lukete". Gauzak hala, 20 urte beranduago jaso zuen La Viñak kaleratze agindua, 2015eko urtarrilean. "Urtarrilaren 1ean kanpoan egon behar nuela esan zidaten, baina abokatuak geratzera animatu ninduen. Nire ama bizirik zegoen garai hartan. Legalki bera zen tabernaren jabea, eta bazegoen abagune bat kaleratuak ez izateko".

Epaiketak

Epaiketetan murgildu ziren orduan. "Amurrioko epaitegian lehen epaiketa galdu egin genuen. Beste bat izan genuen Arabako Auzitegi Probintzialean eta hori ere galdu genuen, baina aukera ematen zigun Espainiako Auzitegi Gorenera joateko. Auzitegi gorenak aukera zuen kasua onartu edo ez onartzeko. Esan zidaten oso aukera gutxi nituela onartua izateko. Orduan erabaki nuen taberna ixtea".

La Viñarekin batera, inguruko beste bi lokalek itxi zituzten ateak: Blanco tabernak eta Almacenes Alava dendak. Jabe berdinarenak ziren bi lokal horiek. "Eurei ere une berean iraungitu zitzaizkien kontratuak. Jabeek ez zuten harreman ona Almacenes Alavakoekin, eta zuzenean kaleratu zituzten. Blanco tabernakoei, aldiz, igoera handia proposatu zieten".

Atxari ere proposatu zioten tabernan geratzea, errenta gaurkotuta. "Hilero 1.500 euro inguru ordaintzea proposatu zidaten, %250 inguruko igoera lehen neukan errentarekiko, baina nik jada ez nuen bertan geratu nahi. Tabernako lana jada ez zen lan duina".

Tabernari beteranoaren ustez, aisialdian egondako aldaketek nabarmen okertu dute ostalaritzaren sektorea. "Laudion egon dira une batzuetan zeintzuetan 100 taberna egon diren, baina 4.000 pertsona inguruk erabiltzen zituztelako". Establezimendu kopurua jaitsi egin da urtez urte, eta errentak igo. "Gauzak gaizki doazenean ez da berdina hilean 500 euro edo 1.5000 euro ordaintzea. Mugatik oso gertu zaudenean, gastuen alde hori hirukoiztea uzteko arrazoia izan daiteke". La Viña bera da ostalaritzaren gaur egungo egoera ezegonkorraren adibide. 2015tik hona bi aldiz ireki da lokala, 'Viña Berria' izenarekin, baina ez du asko iraun. Gaur egun, 'Alokatzen da' dioen kartela du lokalak erakusleihoan.

1.615
eraikin daude Laudion, Eustatek 2020an argitaratutako datuen arabera

218
eraikin daude bideratuak lokaletara

321
eraikinek dituzte etxebizitzak eta lokalak

10
hiri-higiezin baino gehiago dituzten pertsona fisiko eta juridikoak kontsideratzen dira 'jabe handiak', Espainiako Gobernuaren arabera

Norena da Laudio?

Laudioko hainbat lokalek urte asko daramatzate hutsik. **Aiaraldea.eus**

Espainiako Gobernuaren arabera, 10 hiri-higiezin baino gehiago dituzte pertsona juridiko zein fisikoak kontsideratu daitezke 'jabe handi'. Horrelako zenbat daude Laudion? Ez dago galdera horri erantzuteko datu publikorik.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

"La mitad del pueblo es mio y de mi mujer, y la otra mitad lo tengo en alquiler". Hala abesten zuen Pirulo Txou umore talde laudioarrak 1990. hamarkadan, The Offspring taldearen kanta bat bertsionatuz.

Kanta horrek erreferentzia egiten zion Laudion askotan komentatu baina gutxitan azaleratu den uste bati: Norenak dira herriko lokal gehienak? Zenbat 'jabe handi' daude herrian?

Horri buruz galdetu diogu Ilargiko tabernaria den Pili Carrillo Markinezi. Batzalarrin kaleko hainbat gune seinalatu ditu, bere tabernako terrazatik mugitu gabe. "Lokal hori, taberna hori, pisu horiek... nire tabernako lokalaren jabeek beste hainbat jabego dituzte hemen bertan, eta Lamuza Parketik gora dagoenaren zati bat ere eurena da". La Viña taberna ere bada Laudioko 'jabe handi' batena, Nandi Atxa Gorostiagak zehaztu duenez. "Erdiguneko hainbat lokal dira familia berarenak". Hala ere, tabernari erretiratuak ez du uste Laudio jabe gutxiren artean banatzen denik: "Langile askok erosi zituzten aspaldi lonja eta pisuak. Pisuek bere garaian 100.000 pezeta balio zezaketen eta diru hori, Acerosen edo Tubacexen orduak sartuta, erraz ordaindu zitezkeen, gaur egun ezinezkoa dena. Horrek eragin zuen jabetza gehiago banatzea. Beste herri batzuetan, aldiz, kazike gehiago egon dira".

Ez dago Laudion zenbat 'jabe handi' dauden jakiteko datu publikorik

Hala ere, Pili eta Nandirenak bi iritzi baino ez dira. Benetako errealitatea zein den jakiteko, datuetara jo beharko litzateke. Eustatek plazaratutako datuen arabera, 2020. urtean 1.615 eraikin zeuden Laudion. Horietako 1.076 etxebizitzetara bideratuak zeuden, 218 lokaletara eta 321, aldiz, bi funtzioetara.

Baina, nortzuk dira eraikin horiek jabeak? Datu horiek jada ez dira publikoak. Espainiako Gobernuak emandako irizpideen arabera, 'jabe handitzat' hartu daiteke 10 hiri-higiezin baino gehiago dituena. Espainiako Ogasun Ministerioak emandako datuen arabera, Madrilen eta Bartzelonan pilatzen dira 'jabe handi' gehienak (%20). Probintzia guztietako datuak eskaintzen ditu ministerioak, Hego Euskal Herrikoak salbu, bertako datuak bertako katastro agentziek kudeatzen dituztelako.

'Jabe handien' afera eztabaida publikora atera da azken hilabeteetan, Espainiako Gobernuak alokairuak mugatzeko hartutako neurrien testuinguruan. Laudiora ere egin du jauzi eztabaidak. Omnia alderdiak, adibidez, zoru librea duten 'jabe handiei' Ondasun Higiezinen gaineko Zerga "ahalik eta gehien" igotzea proposatu du ordenantza fiskalen eztabaidan. Gaiak, beraz, badu mamia, abesti baten estrofatik harago.

AIA RAL DEA - FAK TO-RIA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

agenda

2022/10/19
2022/11/09

Bizipenak eta Su Ta Gar taldearen kantak
Aitor Gorosabelen eskutik

OrozkoRock jaialdiaren III. Edizioaren ostean, lantaldeko kideak abian jarri dira berriz. Urriaren 28an egingo dute hurrengo ekintza; Aitor Gorosabelen elkarrizketa musikatua. Su Ta Gar euskal metal talde ezaguneko abeslaria eta gitarra jolea da Gorosabel. Xabi Bastidarekin batera, Laukote eibartarrak 30 urte baino gehiago daramatza eszenatokiak astintzen, eta ospe handia lortu dute Euskal Herrian zein mundu mailan.

Ibilbide oparo horretako bizipenak kontatu, eta urte luze hauetan sortutako kanta ezagunenak akustikoan joko ditu Aitor Gorosabelek datorren urriaren 28an Orozkoko Jentilzulo kulturgunean eskainiko duen elkarrizketa musikatuan. Goio Ramos musikari ugaotarrak gidatuko du solasaldia.

Elkarrizketa ikusteko sarrerak Itxina tabernan egon dira salgai bost eurotan, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez txartel guztiak agortu dira honezkero. Horrenbestez, Jentilzulo kulturgunea lepo beteko dute Su Ta Gar taldearen jarraitzaileek. OrozkoRock elkarteko kideek "emozioz beterik eta pozez gainezka" heldu diote hitzordu berri honi.

Rock doinuak Orozkon

2019an antolatu zuten OrozkoRock jaialdiaren lehenengo edizioa. Herritar talde batek Orozkon musika eta kultura sustatzeko sortutako egitasmo batetik abiatu zuten proiektua. Herritarrak ahaldundu eta musikaren baitako eskaintza kultural oparo bat mahaigaineratzeko helburuarekin. Honezkero jaialdiaren hiru edizio antolatu dituzte, horietako bat pandemia egoerak zeharo baldintzatuta, eta fama mundiak handiko bandak igaro dira eskualdeko herritxikitik: Toundra, Ezpalak, Niña Coyote eta Chico tornado, edota Ezpalak.

MUSIKA

10.22 Larunbata
18:30 AMURRIO
MALEN ATXA
Euskaraz bizi nahi dut eguna
Amurrioko parkea

10.22 Larunbata
21:30 URDUÑA
MISTER LEEN ETA FEOS PERO MAJOS
Urrifes
Herri Eskola

TAILERRAK ETA HITZALDIAK

10.19 Asteazkena
17:00 URDUÑA
FORMA GEOMETRIKOEI BURUZKO TAILERRA
Unai Gonzalezen eskutik
Alondegia

10.19 Asteazkena
18:00 AMURRIO
HITZALDIA: "ALDAKETA KLIMATIKORA MOLDAKETA ETA GIZARTE ERRESILIENTEAK, PREST AL GAUDE?"
Jon Cardieno geografoaren eskutik
Nagusi taberna

10.19 Asteazkena
18:00 LAUDIO
"PIXKA BAT SORGINAGOAK IZANGO GARA"
Ahalduntzerako performance eta antzerki ekintza
Lezeaga Aretoa

10.21 Ostirala
18:00 LAUDIO
GURASO LOTSATIENTZAKO TAILERRA
Adingabeen eta gazteen pornografia kontsumoari burizko tailerra, Jose Luis Garcia psikologoaren eskutik
Lezeaga Aretoa

10.22 Larunbata
16:30 LAUDIO
KALE ARTE ESKOLA: SOINU ETA ARGIEN MUNDUA
Faktoria

10.23 Igandea
11:00 URDUÑA
ONGIZATEA NATURAN
Shinrin Yoku teknikarekin ibilaldi saio lasaia eta kilometro 0ko produktuekin hamabietakoa
Turismo bulegoa

10.29 Larunbata
16:00 LAUDIO

10.23 Igandea
11:00 AIARA
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
Ipuin kontalaria, eskulan tailerra eta askaria Aiarako Euskararen Asteburuaren barruan
Arespalditzako aretoa

10.23 Igandea
11:00 AIARA
IPUIN KONTALARIA: "NIKO"
Idoia Sojoren ipuinaren aurkezpena Kaitin Allende eta Inma Roizen parte hartzearekin
Arespalditzako aretoa

10.27 Osteguna
17:30 URDUÑA
ASMATU DEZAGUN IPUIN BAT
Miru Sorginak gidatutako saioa
Alondegia

10.27 Osteguna
18:00 LAUDIO
KALABAZA HUSTUKETA
Gau Beltzaren barruko egitaraua
Ugarteko basoan

10.28 Ostirala
17:30 OKONDO
ZUGAME IPUIN KONTALARIA
Arimen Gauaren testuinguruan egingo den ipuin kontalari saioa
Liburutegia

10.30 Igandea
17:30 AIARA
SUKALDARITZA BELDURGARRIA
Otueta Gizarte Etxea

10.31 Astelehena
17:00 LAUDIO
GAU BELTZA ETA NEGUARI ONGI ETORRIA
Herriko eragile desberdinek elkarlanean prestaturiko egitaraua
Aldai Plaza

IKUSKIZUNAK

10.21 Ostirala
19:00 AIARA
ALTXA KLOPA HORI
Aroa Arruzubieta, Izar Mendiguren, Felipe Zelaieta eta Xabi Igoa bertsolariekin
Luiaondoko frontoia

10.22 Larunbata
20:00 AMURRIO
"TOC: UNA TERAPIA DE CHOQUE"
Antzerkia Amateurraren Jaialdiaren edizio berria
Amurrio Antzokia

Euskaraz bizi nahi dut eguna Amurrion

Urteroko hitzorduari eutsi eta egun osoko egitaraua prestatu dute Amurrion, 'Euskaraz bizi nahi dut egunean". Goizean goiz hasiko dituzte ekintzak; ipar-martxa eta crossfit saioekin. Antolatzaileek kamiseta tekniko bana emango diete kirol jardueretan parte hartzen duten herritarrei. 15:00etan herri bazkaria egingo dute Juan Urrutia Plazan, eta Malen Atxaren kontzertuak itxiko du egitaraua.

XX. Bizkaia Sariak

Orientazio proben hiriburu bihurtuko du Urduña asteburuan

Orientazio lasterketen hiriburu bihurtuko da Urduña urriaren 22 eta 23an. Izan ere, Bidea Orientazio Klubak, COBIk, XX. Bizkaia Saria antolatuko du bertan. Bi kirol probek osatuko dute asteburuko egitaraua: Errelebo mixtoen esprint txapelketa eta iparraldeko ligaren barruko lasterketa klasikoa. Larunbatean, urriak 22, Urduñako hirigunean bertan egingo dute orientazio proba: Errelebo mixtoen esprint txapelketa. Parte hartzaileak 17:00etan abiatuko dira eta 19:00ak arte izango dute tartea alde zaharrean eta inguruko auzoetan izkutatuta egongo diren balizak bilatzeko. Urriaren 23an, aldiz, distantzia lasterketa klasikoa egingo dute. Iparraldeko ligako 10. eta azken jardunaldia izango da, eta bertan ebatziko da txapelketako behin betiko emaitza. Lasterketa Gorobel azpiko baso eta larre artean jokatuko da. COBI taldeak probaren eremua egin berri du publiko, eta parte hartzaileek debekatuta izango dute urriaren 23ra arte inguru horietatik igarotzea.

Urrifest jaiak aldarrikapenez

beteko du Urduñako Herri Eskola

Eskualde osoari zabaldu diote urriaren 22an, larunbatean, Urduñako eskolako patiora gerturatzeko deia. Inor ez aspertzeko moduko egitaraua antolatu dute arratsalde osoan zehar. Disko txantxak emango dio hasiera jaialdiari 17:30ean eta jarraian hiru musika talde igoko dira oholtzara: 17:00etan Five Directions, 21:30ean Mister Leen eta 23:30ean Feos Pero Majos. Jana eta edana ere ez dira faltako arratsalde osoan zehar. Aldarrikapenerako tartea ere hartuko dute. 21:00ak aldera, Euskal Eskola Publikoaren aldeko ekitaldia eta argazki erraldoia egingo dituzte

Zinema afrikarra

Laudion ikusgai

Afrikaldiaren programazioak Laudiora egingo du jauzia. Datorren urriaren 25ean, 18:00etan, Laudioko Kultur Etxean eskainiko dute Gasteizko jaialdian aurkeztutako Tales of the Accidental city umorezko filma. Pelikulak amorrua bideratzeko Zoom bidezko terpaia-saio batean topo egin duten Nairobiko lau biztanleren bizipenak kontatzen ditu.

16:00 LAUDIO
KALE ARTE ESKOLA: UNIBERTSO TRANSMEDIA
Faktoria

KIROL JARDUERAK

10.22 Larunbata
14:00 ARRANKUDIAGA
XORROXIN UR-JAUZIRA ETA SAIOA MENDIRA IRTEERA
Matxinkorta taldeak antolatutako asteburuko irteera
Herriko plaza

10.23 Igandea
08:00 URDUÑA
PICO MERIENDILLAS MENDIRA IRTEERA
Txarlazo Mendi Taldeak antolatuta
Suhiltzaileak

10.22 Larunbata
17:00 URDUÑA
ORIENTAZIO LASTERKETEN XX. BIZKAIA SARIA
Errelebo mixtoen esprint txapelketa
Foru Plaza

10.23 Igandea
08:30 URDUÑA
ORIENTAZIO LASTERKETEN XX. BIZKAIA SARIA
Distantzia lasterketa klasikoa
Foru Plaza

FAMILIA JARDUERAK

10.19 Asteazkena
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK: "ITSAS LAMIA"
Liburutegia

10.21 Ostirala
17:00 AMURRIO
BERDINTASUNAREN ALDEKO TXONTXONGILO TAILERRA
Teatro Titeritantok gidatutako tailerra
Kultur etxea

10.22 Larunbata
17:00 URDUÑA
URRIFEST
Urduña Eskolako guraso elkartearen jaia
Herri Eskola

10.29 Larunbata
20:00 AMURRIO
"EN EL AIRE"
Antzerkia Amateurraren Jaialdiaren edizio berria
Amurrio Antzokia

ZINEMA

10.23 Igandea
19:30 AMURRIO
ZINEMA: "CINCO LOBITOS"
Amurrio Antzokia

10.25 Asteartea
18:00 LAUDIO
AFRIKALDIA: "TALES OF THE ACCIDENTAL CITY"
umorezko filma
Kultur etxea

10.30 Igandea
19:30 AMURRIO
ZINEMA: "OLGA"
Amurrio Antzokia

BESTELAKO JARDUERAK

10.22 Larunbata
10:00 AMURRIO
EUSKARAZ BIZI NAHI DUT EGUNA
Egun osoko egitaraua
Amurrioko parkea

10.22 Larunbata
13:00 URDUÑA
1984ko KINTAREN JAIA
Romulo jatetxea

10.22 Larunbata
14:30 AIARA
AIARAKO EUSKARAREN ASTEBURUA
Izoriako txokoa

10.25 Asteartea
17:30 AMURRIO
AUZOKIDEEN IBILALDIA UDALAREKIN
Auzoko beharrak identifikatzeko
Sabarri taberna

10.26 Asteazkena
17:30 LAUDIO
IRAKURLE KLUB FEMINISTA
Matxalen Gamindezek bideratuta
Liburutegia

INFO +
aiaraldea.eus

erreportajea

Alessandro Brentanak eta Mina Elyk migrazioaren inguruan hausnartu dute. **Aiaraldea.eus**

Pertsona migratuen errealitatea, azalera

Giza Eskubideak urratuz eta legearen interpretazio interesatuekin pertsona migratuen aurrean harresia eraiki dute Europako estatuek. Espainiako Estatuan, esaterako, asilo-eskatzaile guztien eskaeren %10 onartzen dira bakarrik, milaka lagun linbo juridiko batera kondenatuz. Atzean izen abizenak eta istoria errealak aurkitzen dira zifra horien.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Asko dira bizitza hobe baten bila, munduko hamaika herrialdetatik Aiaraldera etorri diren pertsonak; orotariko arrazoiek bultzatuta, asko baldintza gordinenetatik ihesi: gerra, pobrezia, jazarpena... Pertsona migratu haina arrazoi, eta beste hainbeste bizipen guzti hauen atzean. Herrialde bateko zein besteko etorkinek errealitate krudel berdinarekin egiten dute topo: euren egoera erregularizatzeko ezintasuna.

Nondik dator erregularizatzeko zailtasun hori? Alessandro Bentrana ZEHAR-Errefuxiatuekin elkarteko kidea da, eta berak argi du erantzuna: "Arrazismo instituzional asko dago". Besteak beste, asilo-eskatzaileekin egiten du lan Bentranak eta ondo ezagutzen du pertsona migratuek bizi duten egoera.

Bentranaren iritziz, herrialde industrializatuek interesa dute biztanle saldo bat limbo juridiko batean mantentzen, hauek inork egin nahi ez dituen lan eta ogibideetara bidaltzeko. "Espainiako Estatuko ekonomia pertsona migratuek eusten dute, baina hori ez da inon aitortzen. Pertsona migratuak dira landa eremuan jornalari lanak egiten dituztenak, zaintza lanak euren gain hartzen dituztenak... — nabarmendu du Bentranak — ezinbesteko lanak dira guztiak, baina lan baldintza oso prekarioetan eginak; hor baliatzen du estatuak pertsona migratuen ezegonkortasuna".

Cheryf eta Djamila

Ezegonkortasun egoera horretan aurkitzen dira, beste hainbesteren artean, Cheryf eta Djamilaren familia. Arrankudiaga-Zollon bizi dira lau seme-alabarekin batera. Egoera erregularizatzeko ezinbestekoa dute lan kontratu bat, baina paperik ezean ezinezkoa dute lan eskaintzarik aurkitzea.

Historia gogorra da Cheryf eta Djamilarena. Duela ia hiru urte alde egin zuten Aljeriatik. "Oso gogorra da bizitza Aljerian, kaos hutsa da, ez dago gobernurik. Txiroak ginen eta ez genuen gure bizitza aurrera ateratzeko inolako baliabiderik — gogoratu du Cheryfek — Egonkortasun bilatzeko genuen alde bertatik, seme alabei bizitza duin bat eskaini ahal izateko". Cheryf taxi gidari bezala aritu zen bertan, eraikuntzako behargin gisa ere eman zuen denbora, baina nekez irabazten zuen bizitzeko beste. Gurasoak galdu zituzten biek gaztetan, eta, aitortu dutenez senideen babesik gabe zaila da Aljerian bizirautea.

2019ko azaroan gurutzatu zuten mediterraneo itsasoa Cheryfek, Djaimilak eta euren hiru seme alabek. patera batean sartuta. Djamila haurdun zegoen une horretan "Oso bidaia gogorra izan zen, pateran beldur asko pasatu genuen, baina Aljeriako kostaldeko labarretan behera hondartzan paterara igo arteko bidea ere oso arriskutsua eta beldurgarria izan zen", azaldu du Djamilak.

26 ordu igaro zituzten Afrikako kostaldearen eta Espainiako Estatuaren arteko uretan. 200 kilome-

troko bidaia zen, beste hamar lagunekin batera. “Neguko eguraldia zegoen, euria eta hotza. Oso gogorra izan zen — gogoratu du Cheryfek begiak bustirik — Murtziako kostaldera iristeko 40 kilometroren faltan, Espainiako Itsas Armadako ontzi batek erreskatatu gintuen”.

Familiaren odisea, ordea, ez zen bertan amaitu. Mediterraneoa bezain ekaiztsua izango zen borroka burokratiko amaigabe bati ekin zioten. Hilabete gutxi batzuk igaro zituzten Cartagenan, fundazio baten laguntzarekin. Bertan zeudela asilo humanitarioko programaren barruan sartzea eskatu zuten. Orduan jaio zen familiako laugarren semea.

Sei hilabeteko luzapena eskatu zezaketen Murtziako fundazioan baina Euskal Herrira joateko esan zieten: “Gezurra esan ziguten, dokumentu batzuk sinarazi zidaten guk asilo programari uko egiteko. Ez zidaten itzultzailerik jarri eta nik ez nuen ezer ulertzen, esan zidaten lekualdatze bat ari nintzela sinatzen, bidaia txartelen paper batzuk zirela soilik”. Familia aljeriarra ez zen engainuaz jakitun izan Iruñara iritsi arte: “Donostiara jo genuen aurrena. Bertako zerbitzu sozialek gure izenak sisteman sartzerakoan uko egin zioten gu laguntzeari, baina ez ziguten apartekoa azalpenik eman. Murtziara bueltatzeko dirurik ez genuenez Gasteizera joan ginen eta bertatik Iruñara”. Iruñako Gurutze Gorrian, orduko hartan bai, itzultzaile baten laguntzaz, jabetu ziren Murtziako amarruaz: asilo programatik kanpo utzi zituzten.

Cheryf, Djamila eta seme alaben epopeia ez zen bertan bukatu. Bilbora bidali zituzten, beste fundazio baten laguntzaz. Bilboko aterpe batera bideratu zituzten, eta bertan igaro zuten COVID-19ak eragindako pandemiaren lehenengo olatua eta konfinamendua. Buelta askoren ostean, Arrankudiagako etxebizitza batera iritsi ziren. Orduan ere tramitea bideratu zuen fundazioak hainbat oztopo jarri zizkien: “Ez zuten gure seme-alabak eskolara bidaltzerik nahi, legez horretarako eskubidea duten arren. Hiru hilabete igaro genuen aurrera eta atzera”.

Gaur gaurkoz, Arrankudiagako eskolara doaz Cheryf eta Djamilaren seme-alabak. “Azkar ikasi dute euskara, oso ondo moldatzen dira. Zoriontsuak dira Arrankudiagan; lagunak dituzte, esku-pilotan oso gustura ibiltzen dira... Hori da beraientzat nahi dugun guztia”. Halaber, gurasoek euren egoera erregulatu ezean, ezegonkortasunak jarraituko du familiaren egunerokoa arautzen.

“Gezurra esan ziguten, dokumentu batzuk sinarazi zidaten guk asilo programari uko egiteko. Ez zidaten itzultzailerik jarri, eta esan zidaten bidaia txartelen paper batzuk zirela soilik”

Mina

Mina Elyk zorte hobea izan zuen, baina berea ere, beste hainbesterena bezala, oztopoz beteriko migrazio istorioa da. “Ni 10 urterekin iritsi nintzen Amurriora. Nire esperientzia ez zen hain gogorra izan, beste pertsona batzuen egoerarekin alderatuta. Nire aita oso gaixorik zegoen, eta Mauritanian ezin genion osasun arreta duinik bermatu, dirutza ordaindu beharko genukeelako”.

Turista bisa batekin sartu ziren Espainiako Estatura, eta hura agortutakoan ezegonkortasun juridikoan murgildu ziren: “Niri horrek ez zidan aparteko ezer eragin, ikasten nengoen eta horretarako ez nituen paperak behar, nire eskubidea zelako. Lan egiten hasi nahi nuenean, ordea, asko kostatu zitzaidan nire egoera erregularizatzea”.

Sistema arbitrario batekin egin zuen topo orduan Minak. “Nire anaiari arazorik gabe onartu zizkioten dokumentuak. Niri, aldiz, ez zizkidaten bideratu nahi. Ulergaitza da, batzuetan onartzen zaituzte eta beste batzuetan ez, artatzen zaituen funtzionarioaren araberakoa da. Asko borrokatu behar izan nuen”. Bost urte igaro zituen Minak horrela, eskaerak aurkeztuz, eta hauek ukatuak ziren aldiro, prozesua berriz hasiz, harik eta administrazioak dokumentazioa onartzea erabaki zuen arte. Bost urte horietan dokumentu berdinak aurkeztu zituen Minak aldiro; bere egoera erregularizatzea erabaki arbitrarioa izan zen.

Borroka burokratiko horren bes-

Bere egoera erregulatzeko Cheryfek eta Djamilak ezinbetsekoa dute lan eskaintza bat lortzea. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

“Orokorrean borondate politiko falta dago pertsona migratuen egoera bideratzeko. Ukrainatik etorritako pertsona guztien eskaerak, ordea, azkar batean erantzun dira”

ZEHAR-Errefuxiatuekin elkarteak eta Amurrioko Zurrumurruen Aurkako Taldeak ekintza ugari egin dituzte elkarlanean pertsona migratuen integrazioa sustatzeko. **Aiaraldea.eus**

te alderdi batean ere jarri nahi izan du fokua Minak: “Egoera irregularrean dauden pertsona migratuek,hemen geratzeko bezain beste zailtasun dituzte euren herrialdeetara itzultzeko. Ni hirutan izan naiz Mauritanian, baina oztopoak ez dira falta izan. Beti dago bueltatu ezin izango zarenaren beldurra. Pertsonak linbo juridiko batean ez ezik, nortasun linbo batean ere kokatzen ditu: Ez zara bertakoa, baina zure sustraiak ere galdu dituzu. Ez zara inongoa”.

Asilo eskaerak

“Oso zaila da asilo eskaera bat lortzea. Paperaren gainean eskubideak bermatzen badira ere, aplikatzerako ordua ia ezinezkoa bilakatzen da asiloa eskuratzea”, azaldu du Alessandro Brentanak. Espainiako Estatuan asilo eskakizun guztien %10 onartzen da bakarrik. Horrek zailtasun larriak sortzen dizkie pertsona migratuei lana bilatu edo ikasketak egiterako orduan.

“Asiloa lortzen duten horiek ere ez daude ataka errazean — gaineratu du Berentanak — denbora gutxi dute hizkuntza ondo ikasi eta heziketa zentroetan jatorrizko herrialdean zituzten ikasketak homologatzeko. Hor ere zenbait eskubide urratu egiten dira”. Brentanaren iritziz pertsona migratuen ikasketa maila “debaluatzeko” diseinatutako sistema da hori.

Bestalde, asiloa eskuratzen ez duen gainerako %90 egoera irregularrean geratzen da, araututako lan-merkatutik kanpo, eta lan baldintza prekarioetara kondenatuta.

Espainiako Estatura iristen diren pertsona migratuei hiru asilo mota eskaini ahal zaizkie. Alde batetik asilo politikoa dago, arrazoi ideologiko, sozial edota erlijiosoengatik jatorrizko herrialdean errepresaliatuak izateko arriskua duten pertsonei eskainia. Bestetik babes subsidiarioa eskaini dezake estatuak, baldin eta pertsona migratu horien jatorrizko herrialdea gatazka armatu batean murgilduta badago. Azkenik, asilo humanitarioaren figura dago, datuen arabera kasuen %97an Venezuelatik etorritako pertsonei eskaintzen zaie soilik.

2021ean 65.000 asilo eskaera jaso zituen Espainiako Estatuak. Pandemia hasi aurretik, urtean 118.000 eskaeratik gora jasotzera iritsi zen. Baimen guzti horien ehuneko oso handi bat ukatu egiten da; iaz 49.500 eskaera izan ziren atzera bidaliak. “Borondate politiko falta dago pertsona migratuen egoera erregularizatzeko. Ukraina gerrak erakutsi du badagoela gauzak egiteko beste modu bat. Izan ere, Ukrainatik etorritako pertsona guztien eskaerak azkar batean bideratu dira. Arrazismo instituzionalaren beste adibide bat”, azaldu du ZEHAR elkarteko kideak.

2021ean 65.000 asilo eskaera jaso zituen Espainiako Estatuak, pandemia hasi aurretik urtean 118.000 eskaeratik gora jasotzera iritsi zen

“Gainera, migrazioaren inguruko errelato faltsua eraiki dugu. Espainiako Estatura iristen diren pertsona migratu gehienak Brajaseko aireportutik iristen dira, Kolonbia eta Venezuelatik. Ez dira pateretan iristen”, azpimarratu du Brenatanak.

Europako harresia

“Horri guztiari gehitu behar zaio pertsona migratuek pairatu beharreko mugako indarkeria” gaineratu du Alessandro Brentanak. “Guk Europan ez dugu gertutik bizi, hirugarren herrialde batzuk kontratatzen ditugulako horretan jarduteko”. Libia da adibideetako bat. Izan ere, Italiako gobernuak akordioak ditu Bertako administrazioarekin pertsona migranteak blokeatzeko. Espainiako Estatuaren kasuan, Marokoko erreinua da indarkeria hori aplikatzeaz arduratzen dena. “Melillako hesian duela gutxi gertatutako sarraskia da

erreportajea

horren adibide. Europako herrialdeak ere badira basakeria horren erantzule". Alessandro Brenatanaren iritziz migrazioa arazo handi bat da Europako Estatuentzat zein tokiko administrazioentzat, ez ikusiarena egiten dute eta pilota alderik alde pasatzen dute, neurriak hartu beharrean milaka lagun ezegonkortasun egoera kroniko batean mantenduz.

Urratsak aurrera

ZEHAR-Errefuxiatuekin elkarteak 25 urte daramatza asilo eskatzaileak artatzen eta hauei harrera egoki bat eskaintzen. Borroka burokratikoaz harago pertsona hauek komunitatean integratzea ere ezinbestekotzat jo du Brentanak: "Sareak ehundu behar ditugu, elkar ezagutu eta ekosistema egokia sortu pertsona migratuak gure artean ondo integratu eta erraztasunak izan ditzaten". Komunitatea ahalduntzeko beharrean jarri du Brentanak azpimarra. Bide horretan ekintza ugari egin ditu elkarteak Amurrioko zurrumurruen aurkako taldearekin elkarlanean. Garatutako azken proiektua da herriko pertsona migratuen bizipenak biltzen dituen dokumentala da, baina badira bide berean urratsak ematen dituzten beste hamaika egitasmo. Horien artean aurkitzen da ere urteroko Bizilagunak ekimena aurten ere jatorri desberdineko herritarrak otordu baten bueltan elkartuko dituena.

kultura



“1970eko hamarkadan margolari abstraktua nintzen jadanik”

PEDRO EGUILUZ (Urduña, 1948) MARGOLARIAK ERAKUSKETA JARRI DU ORDUÑA HIRIA MUSEOAN BERE IBILBIDE LUZEA ISLATZEKO. ZEUTAN BIZI DA ORAIN, BAINA AURRETIK KOLONBIAN, MAROKON EDOTA KANARIAR UHARTEETAN EGON DA.

Testua eta argazkiak
Aitor Aspuru Saez

Noiz erabaki zenuen zuk margolari izatea?

Txikia nintzenetik nahi nuen. Orduña Museoan ikusgai dagoen erakusketan badago 10 urterekin egindako koadroa, Getxako paisaia da. Ume txikia nintzenetik marrazten dut.

Dena den, guztia hasi zen Bartzelonako familia bat ezagutu nuelako. Grabatzaileak ziren eta udatiarrak ziren eta hemengo paisaiak margotzen zituzten olio-pinturarekin. Han hasi zen nire harremana material horrekin.

Eurak Bartzelonara itzultzean, nik jarraitu nuen Urduñako haranean paisaiak margotzen.

Hamabost urterekin sartu nintzen Gama enpresara lanera delineatzaile gisa, zortzi urtez. Modu paraleloan margotzen nuen eta Bilboko Arte Eskolan trebatu nintzen. Horren ostean, Iruñean egin nuen zerbitzu militarra eta teniente koronel batentzat margotzen nituen koadroak.

Handik itzuli nintzenean, Bilboko Arte Ederretako goi-eskola ireki zuten eta ni izan nintzen bigarren promozioko lizentziaduna.

Orduan lana eta sorkuntza uztartu zenituen?

Ez, nire emazteari esker margotzera bideratu dut nire bizitza. Bera irakaslea zen Ezkerraldean, Sestaon. Jarraitu nuen ikasten horri esker eta beka lortu nuen Segoviara joateko. Estatu Espainiarreko Arte Ederretako goi-mailako ikasleak batzen ginen han eta kaleetatik sakabanatzen ginen paisaiak margotzeko. Urrezko domina eskuratu nuen eta 1976an egin nuen nire lehen erakusketa, Valera galerian.

Niretzat oso garrantzitsua izan zen, zenbait koadro saldu bainituen. Garai horretan jadanik margolari abstraktua nintzen, eta ez figuratiboa. Alegia, Arte Ederretan sartu nintzenean, lagun batzuei esker, margo abstraktuaren jarraitzaile bilakatu nintzen.

Hor hasi zen zure ibilbide profesionala?

1977an Gasteizko beste arte-galeria batean egin nuen erakusketa, baina politika frankisten ondorioz, nire emaztea bidali zuten Sestaotik Kanariar uharteetara, El Hierrora, hain zuzen. Familia osoak etxez aldatzeko beharra izan genuen. Antza, “nazionalismoen arazoa” konpontzeko, penintsulako hegoaldeko irakasleak iparraldera bidaltzen zituzten eta alderantziz.

El Hierroko uhartera joan behar zela esan ziotenean emazteari, San Telmo Museora ni joaten ari nintzen nire burua eskaintzeko margolari gisa, erakusketa egiteko. Bi koadro eraman nituen Donostiara horretarako. Lortu nuen eta 1978an erakusketa egin nuen han. Beste bi gehiago egin nituen Gernikan eta Durangon.

Eta El Hierron asko margotu zenuen?

Ez, gertatu zen arte-galerien mugimendu komertziala, zeinak aztoratu ninduen. “Transvanguardia” deitu zuten eta, finean, suposatzen zuen abangoadien desagerpena, egun batetik bestera. Bat-batean iragan klasikora itzuli zen artea. Mugimendu interesatua izan zen eta niri depresioa eragin zidan. Ni mugimendu espresionistako jarraitzailea nintzen, abangoardia klasikoa.

Hainbat urtez egon nintzen eskegita eta 1986an berriro konektatu nuen espresionismo abstraktuarekin.

Nola itzuli zinen?

Bilboko Ferian Eder Arte ekimena zegoen eta artistok erakusmahai batzuetan genituen gure lanak. Campuzano plazan zegoen arte-galeria batean ere... Baina krisialdian egon nintzen denbora luzez. Uste nuen ez nekiela margotzen eta zirriborroak egiten nituen argizari margoekin eta gero kopiatzen nituen olio-pinturarekin.

1990ean nire emazteak plaza lortu zuen Kolonbian eta Bogotara joan ginen familia osoa. Han berreskuratu nuen autoestimua eta biziki margotu nuen. Erakusketa egin nuen nazioarteko arte-galeria batean eta erakusketak prestatu nituen.

Horrez gain erakundeentzako lanak egin dituzu, ezta?

Bai, Bizkaiko itsasontzi-historia margotu dut, natur zientziako Arabako Museorako kartelak sortu ditut, argitaratu dut *Llodio, imágenes para la memoria* eta *El Cerro: Frontera abierta* liburuak. Lehenengoan nire emaztearen aitaren -Jose Montes- argazkiekin egin

genuen liburua eta bigarrenean Bogotako toki horretako espezieen marrazkiekin osatu genuen liburua, ingurumen proiektu baten barruan, nire emaztearekin ere.

Dena den, ibilbide oso luzea dudanez, zaila zait dena laburbiltzea. Adibidez, Bilboko Ur Depositoan egin nuen erakusketa bat 'Asuntos de pintor', Gasteizen Vital Kutxan beste bat, 'Pinturas de reconocimiento', 'Afrilias' Casablancan, 'Viaje de vuelta' Kolonbian...

Galdera apur bat topikoa da, baina Kolonbian bizi izan zinen drogen kartelen zabalkunde garaian...

1990ean Bogotan bizitzea oso bortitza zen. Eztandak zeuden edonon. Asteburuetan 500 hildako zeuden tiroz hilda. Bi esperientzia oso latzak izan nituen, bitan lapurtu zidaten eta heriotza oso gertu izan genuen. Halaber, Kolonbian bizitzeak ahalbidetu zuen New Yorketik Magallanasera joatea, Amerika ezagutzea: Venezuela, Ekuador, Txile, Argentina, Galapago uharteak, Madagascar, Maurizio... Bidaia ugari.

"Oso polita izan zen bildumak herritarren interesa piztu zuela ikustea. Jendea oso pozik atera zen, eta askok zoriondu gintuzten egindako lanagatik"

Kolonbiaren ostean nora jo zenuten?

Zeutara. 2008an erakusketa oso garrantzitsua egin nuen, 64 margorekin, Museo de las Murallas Realesen. Bi hilabetez egon zen. Umeekin tailerra egin nuen margolaritza ez figuratiboaren inguruan eta euren margoekin murala osatu genuen. Iaz museo berean olio-pinturekin egin nuen beste bat, 'Contravacío' izenekoa. *Horror vacuiri* buruzko lana. Hau da, artistaren beharra koadroaren azalera guztia okupatzeko.

Nola bukatu zenuten Zeutan?

Euskal Herrira itzultzea zen asmoa, baina aukera ekonomikoa izan zen. Bestalde, gure joera nomadarekin jarraitzea zen.

Sestaotik El Hierrora joan ginen eta handik Gasteizera, gero Kolonbiara, Gasteizera berriro, Casablancara, Kolonbiara beste behin... Niri berdin zitzaidan non margotu.

"Ikasleek egindako lana izugarria izan da. Asko eskatu zaie eta izugarrizko maila altua erakutsi dute; beti irribarre batekin"

Eta nola heldu zara berriro Urduñara?

Orduña Museoko zuzendariak proposatu zidan hemen egitea erakusketa eta baiezkoa eman nion. 'De memoria' da bere izena. Nire margoak ez du zirriborrorik, zuzenean margotzen dut koadroa. Oso interesgarria iruditu zait herrian egitea erakusketa, nire lanak ez baitira figuratiboak. Jende ugari etorri da nire "zentzugabekeriak" ikustera. Gainera, polita iruditzen zitzaidan koadro bat hemen margotzea jendearen aurrean.

Gero Zeutara itzuliko zara lanean jarraitzeko?

74 urte ditut. Duela 50 joan nintzela Urduñatik eta margolari bilakatu nintzen. Modu apalean Picassoren eredua jarraiki -90 urterekin zendu zen eta aurreko egunean zazpi margolan sortu zituen-, nik ez dut erretiroa hartuko. Ahal dudan bitartean margotzen jarraituko dut.

kultura

‘Daniel|a|’ websaioak sei izendapen jaso ditu Seriesland nazioarteko webserie jaialdian

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urriaren 14tik 22ra bitartean ospatuko dute Seriesland Jaialdia eta Daniel|a| websailak lehiaketaren sei kategoriatan parte hartuko du. Bilbon izango den festibala hitzordu oso garrantzitsua da websailen esparruan, Mikel Ayllonek Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez: "Nazioarteko websailen jaialdien zirkuituan dago sartuta Seriesland eta atzerriko jende pilo bertaratuko da. Aukera polita da, atea ireki daiteke kanpora begira eta. Berez, euskal produktu onena izateagatik badaude bi sari; Brasilgo nazioarteko jaialdi batera joatea edota Berlinera".

Guztira, sail ofizialean nazioarteko punta-puntako beste hogeita bederatzi websailen ondoan egongo da Daniel|a| eta EAEn egindako ekoizpenen kategorian gazteleraz egindako beste bi saioekin arituko da lehian.

Zehazki, nazioarteko websail onenaren eta dramarik onenaren saria jasotzeko aukerak izateaz gain, Nora Alberdik, Irati Agirreazkuenagak era Gabriel Ocinak ere aitorpenak jaso ditzakete, zuzendari onenaren, taldeko antzezle onenaren eta taldeko gizonezko aktorerik onenaren kategorietan, hurrenez hurren.

Proiekzioa eta sari banaketa

Urriaren 17an 19:30ean Daniel|a|-ren proiekzioa egin zuten Bilborocken eta urriaren 21ean izango da sari banaketa Guggenheim Museoan. "Talde ia guztia joango gara sari banaketara", aurreratu du Mikel Ayllonek. Produktuaren emaitzari buruz galdetuta, Ayllonek positiboki baloratu du egindakoa: "Izandako baliabideekin produktu berritzailea eta kalitatezkoa egin dugu. Tamalez, EITB-k ez die garrantzirik ematen ikus-entzunezko ekoizpenei, eta euskaraz egindakoei, are gutxiago. Hortaz, uste dugu zabalpena ez dela nahikoa sustatu. Izan ere, proiektu honek erakusten du kalitatezko transmedia lanak egin daitezkeela hemen bertan, kanpotik, gehienbat Ameriketako Estatu Batuetatik, heltzen denari begira egon gabe".

Transmedia proiektuak podcasta eta websaila hartzen dituela barne eta azken atala Aiaraldea Ekintzen Faktorian bertan grabatu zen.

Tubacexeko grebalariei aitortza egin diete Los Chikos del Maiz rapeatzaileek

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

"Metaleko edo Tubacexeko grebengatik, borroka eginez garaitu daitekeela frogatzen dutenak". Esaldi horrekin omendu ditu Los Chikos del Maiz bikoteak Tubacexeko grebalariak. *Nomadas* abestiaren hitzetan egin diete aitortza Aiaraldeko langileei. Aurki kaleratuko duten *Yes, future* disko berriko bigarren aurrerapen kanta da honakoa, *Ecos de un futuro* pasado kantaren atzetik.

Itxaropenari egindako kanta da *Nomadas*. Hori dela eta, 150 kaleratzeren aurka 238 egunez luzatu zen Tubacexeko borroka historikoa ekarri dute gogora. Grebak iraun bitartean ere bikote valentziarrak hainbat elkartasun ekimen babestu zituen Aiaraldeko grebalarien alde. Esaterako, erresistentzia kutxan ekarpena egitea eskatu zieten euren jarraitzaileei. Horrez gain, elkartasun zozketa bat ere antolatu zuten, etekin ekonomiko guztia greba babestera bideratuz:

Josu Ortiz Delgado garaile Abesbatzentzako XXVIII. Konposizio Txapelketan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lehen saria eskuratu du konposatzaile laudioarrak ‘Luces del año’ obrarekin.

Josu Ortiz Delgadoren Luces del año lana gailendu da Abesbatzentzako XXVIII Konposizio Txapelketa - BBK sari nagusian. Musikari laudioarrak sare sozialen bidez eman du lorpenaren berri. Aurreratu duenez, 2023ko otsailaren 25ean estreinatuko dute obra, Barakaldoko Clara Campoamor Gizarte Etxean.

Gaztea den arren, ibilbide oparoa egin du Ortizek dagoeneko konposaketaren munduan. Konposizioa eta zuzendaritza ikasi zuen Madrileko musika kontserbatorioan. Hogei konposizio sortu ditu honezkero, eta iaz bi lan estreinatu zituen Madrilgo Reina Sofia Museo ospetsuan. Bost urterekin hasi zen musika ikasten, eta Laudioko Musika Bandatik zein Bilboko Kontserbatoriotik igaro zen gero. Egun Madrilen dago laudioarra, Konposizioa eta Orkestra Zuzendaritza ikasten.

kultura

300 laudioarren erretratuekin performancea egingo du KulturLab ekimenak azaroaren 26an

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 26an arte ekintza ikusgarria egingo du KulturLabek Lamuza plazan. Horretarako, 300 laudioarren erretratuekin irudi erraldoia osatuko du. Hitzordu horrekin, nazioarteko bi arte egitasmotara batuko da.

Alde batetik, 'Inside Out' proiektuari egingo diote ekarpena. Elkarteak berak azaldu du hori: "Parisko "JR" hiriko artistaren proiektua da, 148 herrialdetan garatu dena, 2300 ekintza artistiko baino gehiagoren bidez". Jadanik 450.000 erretratu baino gehiago bildu dituzte ekimen horretan eta laster laudioarrenak ere egongo dira horien artean. Bestalde, 'Fair Saturday'-Azokako larunbata- proposamenarekin ere egingo du bat performanceak. "Jaialdi hau Black Friday famatu eta ezagunenaren biharamunean ospatzen da, neurrigabeko kontsumismoa eta erosketa konpultsiboaren aurrean kultura eta garapen soziala bultzatzeko beharra salatzeko. Bilbotik sortuta, Fair Saturday proiektua gero eta urrunago hedatzen ari da, eta Laudiotik bat egin nahi dugu ekimen errebindikatzaile, kultural eta sozial honekin" azaldu du KulturLabek. Elkarteak ekintzaren berri eman du herritarrak animatu daitezen laguntzen eta erretratuak itsasten. Horrez gain, erretratu berriak egin daitezke. Oraindik ere argazkietan ateratzea nahi badu norbaitek, hauxe da argazkilariarekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 656 70 70 80. KulturLabek azaldu du interesgarria dela interesdunak taldeka antolatzea, argazkilariari lana errazteko.

Aldarrikatzailea

Egitasmoaren helburua da ez soilik ondo pasatzea edo artea sortzea. KulturLabek mezua bidali nahi die erakundeei: "Erakundeek ausartagoak eta anbiziotsuagoak izan behar dute, eta Lamuza Parkeak eskaintzen digun aukera eta garatzen ari diren obrak baliatu behar dituzte haratago joateko eta errenferentziazko gune kultural erakargarri bat sortzeko. Leku moderno eta parte-hartzailea, egungo kultura sustatzeko balioko duena, baina baita palanka ere egingo duena, gazteen artean kultura sustatzeko eta gorabidean dauden kulturei lekua emateko.

Bigarren azala

Bien bitartean aurrera jarraitzen du Kultuzaleak taldearen "Bigarren azala" interbentzio artistikoak. Igor Arzuagaren "Hau ez da pipa bat" ilustrazioak janzten du orian Laudioko Zumalakarregi etorbidea. 15 metro koadroko horma irudiak artista aretarraren ilustrazioa jaso du, ekainean Kulturlab egitasmoaren barruan abiatutako esku-hartze artistikoari segida emanez. Arzuagak, René Magritte artista belgikarrari egin dio keinu horma irudi bilakatu den ilustrazioan. Argazki-oinarri baten gainean tratamendu digitalaren bidez egindako ilustrazioa da artista aretarrak aurkeztutakoa".

Koben, Japonian, 'Inside Out' egitasmoaren barruan eginiko ekintza. **KulturLab**

EMAKUME SORTZAILEEN ZIKLOA

IRAILA - ABENDUA 2022

Emanaldien ostean tokiko produktu ekologikoekin afaltzeko aukera egongo da.
Erreserba: 722 84 67 62.

www.faktoria.eus
@aiaraldeaekintzenfaktoria
kultura@aiaraldea.eus · 633 517 383
Errotari kalea, 4-8 LAUDIO (Araba)

AZAROAK 27/ 18:00
MATRIUSKA
ANTZERKIA
TTAK TEATROA ETA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

URRIAK 22/ 21.00
HABIA
KONTZERTUA

ABENDUAK 16/ 20:00
BEGIAK ZERUMUGAN
POESIA ETA MUSIKA
MIREN AGUR MEABE ETA DANA MOYA



AZAROAK 6/ 17:30
PIZTU! EmakumeON ENERGIA
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
EIDABE

ABENDUAK 30/ 20:00
AIARALDEKO EMAKUME* SORTZAILEAK
DIZIPLINA ARTEKO IKUSKIZUNA

AZAROAK 11/ 20:00
EMAKUMEAK
DANTZA
GARAIKIDEA
NODE



7 SAIOETARAKO BONOA:
Faktoriako Bazkideak: 30€
Faktoriako Ez-bazkideak: 40€
Ikasle eta langabetuak: 25€

BANAKAKO SARRERAK:
Faktoriako Bazkideak: 6€
Ez-Bazkideak: 8€
Ikasle eta langabetuak: 5€

kirola

“Munduko Txapelketa irabazi izana ez da mugarri bat niretzat, lehiaketa gehiago irabazi nahi ditut”

IZARO BLANCO PIKATZA (Orozko, 2010) MUNDUKO TXAPELDUNA IZAN DA VENEZIAN, LIGHT CONTACT DIZIPLINAN, ETA MUNDUKO BIGARREN KICK LIGHTEN. LORPEN HANDIA IZAN BADA ERE, GAZTEA ETORKIZUNERA SO DAGO JADANIK

Testua
Aitor Aspuru Saez

Veneziara joan zinenean uste zenuen munduko txapelduna eta txapeldunordea izango zinela?

Konturatu nintzen, joan baino lehen, oso lasai nengoela, asko entrenatu nuelako eta hainbat irteera egin ditudalako jadanik selekzioarekin. Esperientziak laguntzen du.

Hala ere, ez nuen espero txapelduna izatea, baina bai borrokaren bat irabaztea.

Duela gutxi aipatu zenuen zure helburua zela urduri ez jartzea.

Bai, oro har, izugarri urduritzen naiz lehiatzean eta zentzu horretan hobetu dut. Ez dut landu, uste dut asko entrenatzeak konfiantza eman didala.

Montenegron eta Turkian ibili zara aurretik, esaterako, baina egonaldi hau oso luzea izan da.

Bai, egun pilo izan dira. Irailaren 29tik urriaren 9ra, hain zuzen. Ikaragarria izan da, jende asko ezagutu dut, herrialde ezberdinetakoak, irabazi dut... Mundiala izan da.

Diziplina batean txapeldun izan zara eta bestean txapeldunordea, zein ezberdintasun egon da?

Light Contacten irabazi dut. Ezaugarri nagusia da ezin dela eman ostikorik gerriaren azpitik. Kick Lightean, aldiz, hanketan ostikoak emateko aukera dagoela, bigarren izan nintzen. Arraroa da, nik entrenatzen baitut K-1 kirolean -belaunak ere erabili ahal dira- eta hobeto ematen zaidan diziplina da Kick Lighta, baina aurten Light Contacten Turkian ere irabazi nuen Open bat. Harritzen nau, ez baita nire diziplina.Aipatu beharra dago, teorian, txapelketan kolpeak arinak izan behar direla, baina gogor jotzen dute nazioarteko txapelketetan. Ez dute potentzia kontrolatzen.

Nola bizi izan dituzu txapelketetako borrokak?

Nahiko ondo, baina galdu nuen finalean, ez nuen nire burua oso ondo ikusi. Ongi hasi nintzen, baina azken asaltoan joan zitzaidan lehia. Dena den, oro har, pozik geratu naiz egindako lanarekin. Entzun dut entrenatzaileak esaten zidana eta lasaitasunez borrokatu naiz.

“Ringa oso gogoko dut, baina tatamia izan da ateak ireki dizkidan diziplina”

17 urterekin munduko txapelduna izanik, zein erronka geratzen zaizkizu?

Aurten Espainiako Txapelketa dago eta irabazten badut, Europakoa. Open batera joatea nahiko nuke ere, Austriara, WAKO sailkapenean puntu gehiago lortzeko. Nahiko nuke Olinpiadetara joatea, baina hori ametsa da.

18 urte betetzean ringean aritzeko asmoa duzu?

Aurten jarraituko dut juniorretan, 18 urterekin amaitzen delako. 19 urterekin senior kategoriara pasako naiz. Ni tatamian borrokatzen naiz, baina nahiko nuke borrokaren bat ringean egitea. Biak oso gogoko ditut, baina tatamia zabalduago dago. Azken finean, tatamiak eman dit dena. Ez dut baztertzen borrokaren bat egitea ringean, baina ateak ireki dizkidana izan da tatamia. Ringeko borroka batzuk egin nahi ditut, baina lesioak ezberdinak dira eta zaila da nazioartean aritzea. Borrokak ez dira txantxak eta badaude Azerbajan edo Uzbekistan bezalako herrialdeak, zeinen oso gogorrak diren. Horregatik oso ezberdina da Euskal Herrian edo estatuan borrokatzea eta nazioartean egitea. Gainera, borroka asko behar dira atzerrira ateratzeko, hortaz, momentuz baztertzen dut.

Zein izan da munduko txapelduna izteko ibilbidea?

Kick Boxing egiten hasi nintzen hiru edo lau urterekin. Espainiako Selekzioan 2016an hasi ziren ni hautatzen. Nire nebagatik hasi nintzen, berak ere egiten zuelako. Sei edo zazpi urterekin pentsatu nuen agian ainguratuta geratzen ari nintzela, nire lagunek patinajea edo beste kirol batzuk egiten zutelako eta utzi nahi nuen, baina jarraitu egin nuen, irabazten hasi nintzen eta gehiago gogoko izan nuen. Dena izan da nire nebagatik, Espainiako Txapelketara joaten nintzenean bera ikusteko zen. Ikusi nuen borrokalariek harremana zutela euren artean, kamisetak trukatzen zituztela... Garai hartan nire neba lau aldiz izan zen Espainiako Txapelduna eta horrek ere animatu ninduen.

Zer nolako harremanak dituzu zure aurkariekin?

Oso onak. Aurten munduko txapelketan ikusi ditut iaz ezagututako batzuk: Poloniakoak, Italiakoak... Kirol honek basatia dirudi, baina borroka amaitzen denean, lagunak gara. Kamisetak trukatzen ditugu, argazkiak egiten ditugu... Gure alde basatia tatamian geratzen da, aurkariak lagunak dira kanpoan eta harremanak oso onak dira. Selekzioko kideekin harremana ikaragarria izan da, batzuekin hainbat urtez aritu bainaiz.

Senior mailan asko aldatuko da dena?

Bai. Oraindik falta zait urtebete juniorren, baina gehiago entrenatu beharko dut. 19 urtetik 39 urtera arte heltzen da kategoria eta ez da gauza bera 20 urteko kirolari bat eta bizitza osoa eman duena Kick Boxing egiten. Jadanik pilo entrenatzen dut, baina egoera ezberdina izango da. 16 edo 17 urterekin kontrolatzen dituzu aurkariak, gutxi direlako. Seniorren, ordea, ezin dituzu aurkari guztiak kontrolatu. Zailagoa izango da. Munduko Txapelketan kategoriak banatzen dira eta ezin izan ditut seniorrak ikusi, baina Turkiako Openean ikusi nituen eta borrokalariek helburu ezberdinak dituzte. Adibidez, niretzat irabaztea garrantzitsua da, baina orain Kick Boxinga kirol olinpikoa izango dela, seniorrek irabazi behar dute, bai ala bai, Olinpiadetan egoteko. Hori jokoan dago.

Klub ugaritan ibili zara, gaztea izan arren.

Bai, orain Portugaleten nago, Contact Clubean. Oso pozik nago, familia ikaragarria da niretzat eta entrenatzaileak onenak dira, jartzen diotelako arreta hasieratik amaierara arte. Klub askotan egon naiz eta bakoitzetik ekarpen garrantzitsuak atera ditut, baita jendea ezagutu ere. Egungo gimnasioan, ordea, Marokoko Txapelduna da nire entrenatzailea eta izugarria da.

17 urterekin munduko txapelduna izateak aldatu dizu bizitza, lagunekin, adibidez?

Jendeak esaten dit transmititzen dudala munduko txapelduna izatea erraza edo sinplea dela. Egia esanda, ni oraindik ez naiz kontziente. Jendeak eta nik ez dugu berdin ikusten. Selekzioan dagoen jendearekin gehiago ulertzen dut elkar horretan. Azken finean, nik uste dut txapelketa gehiago irabazi ahal ditudala. Hau ez da muga, ez dut guztia irabazi, gehiago entrenatu behar dut eta jendeak ez du hori ikusten. Badago estatu espainiarrean neska bat zeinak bederatzi aldiz irabazi zuen Munduko Txapelketa. Txapelketa bat irabazi edo galdu, amaitzen denean, hurrengoan pentsatzen hasten naiz. Ainguratzen banaiz garaipenetan, ez dut hobetuko. Izan ere, aurten Munduko Txapelketan Italia garaitu izanak ez du esan nahi hurrengo urtean Europako Txapelketan menderatuko dudanik berriz.

kirola

MENDIZALETASUNA

1000 ibiltarik bete arte, zabalik dago Gorobel mendi ibilaldiko izen-ematea

Ehunka mendizalek hartzen dute parte urtero ekimenean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Prest dago Mendiko Lagunak taldea 36. aldiz eskualdeko mendilerro ezagunetik zeharkaldia antolatzeko. Aurtengo Gorobel mendi ibilaldia azaroaren 6an izango da eta, ohi gisa, hiru zirkuitu prestatuko dituzte.

Izen-ematea urriaren 11n zabaldu zuten, eta hilabeteko epea egongo da parte hartzeko. Interesdunek Mendiko Lagunaken webgunera jo behar dute horretarako, eta bertan dagoen fitxa bete. Hala, oroigarritzat banatuko duten kamisetaren neurria ere zehaztu beharko dute, beste zenbait daturekin batera.

Hiru zirkuitu

Ohiturari jarraituz, ibilaldi txikia (11.5 km), ertaina (22.5 km) eta handia (49 km) aurkeztu dituzte. Bira laburrak Lendoñogoiti, Goiko Landeta eta Mendeika lotuko ditu; ertainak Goiko landeta, Bedarbide eta Tologorri; eta luzeak Gabika, Untzaga, Arando, Txarlazo edota Tologorri. Funtsean, Gorobel mendilerroan barrena ibiliko dira partaide guztiak, norbere erritmo eta neurrian bada ere.

Bestalde, #gorobel22 traola baliatuta, argazki eta bideo labur txapelketa errepikatzeko asmoa iragarri du elkarteak. Ekimen horren inguruko xehetasunak Facebooken, Instagramen edota webgunean zabalduko dituzte aurrerago.

Aiaraldea Komunikabideak, babesleetako bat izanik, probaren jarraipen berezia egingo du eskura dituen komunikazio euskarrietan.

ATLETISMOA

Laudioarrek hiru domina lortu zituzten Berangoko Nazioarteko Milian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Larunbatean lehiatu zen Berangoko XXXIV. Nazioarteko Milia eta Laudio Atletismo Klubeko hainbat kidek parte hartu zuten hitzorduan. Gainera, hiru taldekide dominarekin itzuli ziren etxera. Hain zuzen, June Rivasek brontzezko domina eskuratu zuen 16 urtetik beherako kategorian, Ane Lopezek zilarrezko domina irabazi zuen Senioren artean eta Naia Laso, Promesako lehiakideen artean ere bigarren izan zen ere.

Alberto Talledo klubeko presidenteak oso positiboki baloratu ditu emaitzak: "Berangokoa nazioarteko lasterketa oso ospetsua da eta kanpoko hainbat kirolarik parte hartzen dute. Edizio honetan, esaterako, portugaldarrek irabazi zuten".

DUATLOIA

Ehundik gora parte hartzaile eta zaletu bildu ditu Aiarako Mendi Duatloiak

Txandakako kategorian Unai Unzaga eta Joseba Aguirrek osatutako bikoteak lortu zuen marka onena **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Josu Urrestarazu Garcia eta Enara Oronoz Mateo gailendu ziren banakako proban

Larunbat arratsaldean lehiatu zen Aiarako Mendi Duatloiaren VII. edizioa, Arespalditzan. Arratsaldeko lauretan atera ziren proba banaka egin zuten kirolariak. Handik bost minutura, aldiz, txandakako kategoriakoak abiatu ziren.

Biek ala biek osatu behar izan zuten ibilbide berdina: 6,18 kilometro oinez, 15,24 kilometro bizikletaz eta, bukatzeko, beste 1,52 kilometro hankak baliatuta.

Banakakoen kategorian Josu Urrestarazu Garcia gailendu zen gizonezkoen artean, ordu bat, 30 minutu eta 30 segunduko marka lortuta. Lehen emakumea, aldiz, Enara Oronoz Mateo izan zen. 1:52:36 denbora egin zuen Yurrebaso klubeko kirolariak.

Txandakako kategorian, ostera, Unai Unzaga eta Joseba Aguirrek osatutako bikoteak lortu zuen gailentzea, 1:34:52ko marka eginez.

herriko plaza

Martin
Zorionak Martin, zure familiaren partetik

Familia

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 9an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

	2						8	
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ERRAZA

	3		7					6
4					9		8	3
	7			2	3			5
6			4					
	5				2	6		7
		4	3		5			
	6		8		4	5	3	
		3	2	5				
5	4			3	7			9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

XXXVI. Gorobel ibilaldian parte hartzeko bi dortsal zozkatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak

XXXVI. Gorobel ibilaldian parte hartzeko bi izen emateren zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** urriak 28, 13:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

ARROSA ETA LEUNA

Idazlea: Adela Turin
Argitaletxea: Kalandraka
Genero estereotipoes hitz egiten duen ipuina da hau. Haurrekin gaia lantzeko ipuin interesgarria. Elefante emeak leunak eta arrosak dira, baina badago bat ez duena kolore arrosa hori lortzen. Bere etxean presio handia du arroasa bihurtzeko.

ENEKOREN SOINEKO ARROSA

Idazlea: Anne Fine
Argitaletxea: Alfaguara zubia
Enekori goiz batean bere amak soinekoa jartzen dio eta eskolara bidaltzen du. Eskolan trufak eta barreak dira nagusi ikusten dutenean. Enekok, ordea, soinekoarekin, bere gorputzean ikusten du emakumeek pairatzen dituzten zapalkuntzak.

JOLAS GUNEA

SIMON

AZALPENA:
Gaur egun agian ez da hain ezaguna. Pantailarik gabe jolasteko aukera ematen duen jolas interaktiboa da.

Beraz, jolas elektronikoak erabiltzeko modu interesgarri bat da. Memoria jolas bat da, soinu eta koloreekin jolasteko duena. Haurrek makinita batekin jolastuko dute, baina aldi berean memoria eta belarria findu.

GAZTAINAK MARGOTU

AZALPENA:
Orain da gaztaina garaia. Gaztainondoetatik dena erabili daiteke. Gaztainondoak oso garrantzitsuak izan dira Euskal Herrian.

Fruta hauek omentzeko eskulan bat eskaintzen dugu.

1. Mendira joan eta gaztainak bildu. Aztertu dauden zuhaitzetatik zein den gaztainondoa eta kirikinoak topatu. Batzutan kirikinoak gaztainondotik urruti daude.

2. Kirikinoak zabaldu eta gaztaina atera. Begiratu eta ondo aztertu gaztaina margotu aurretik, zer eta nola margotuko den pentsatzeko.

3. Gaztaina permanente batekin edo tenperarekin margotu. Aurpegi beldurgarriak egin daitezke edo forma ezberdinak. Gozatu margotzen.

4. Margotutako gaztainekin lepokoak egin daitezke edo gela apaintzeko elementuak.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Arimen gaua

Bada zer ospatu! Urri bukaera geroz eta gertuago dago, eta horrekin batera naturak hainbat aldaketa pairatzen ditu. Uda alde batera utzi eta neguaren tartea iristen zaigu, negua dator eta harekin batera hotza eta iluntasuna.

Gaua da nagusi egun hauetan, eguzkiak denbora gutxiago argitzen ditu gure kopetak. Gauarekin batera beldurrak aireratu egiten dira.

Natura beraz, gure Amalurra, aldaketa fase batean kokatzen da, udatik negura, oparotasunetik txirotasunera, bizi-bizi egotetik hiltzera... Iluntasuna nagusi da eta lotara sartu da, udaberrian berriz esnatuko dute joaleek, makilek eta oilarrek, orain utziko diogu deskantsatzen.

Bai, Arimen gauaz edo Gau Beltzaz ari naiz. Euskal Herrian, eta Europa osoan, betidanik ospatu egin den eguna izan da. Arestian esan bezala, naturaren aldaketa fase baten hasiera da ospatu egiten dena egun hauetan, eta beraz gurea den egun bat da.

Naturaren aldaketak betidanik erritualizatu egin izan dira, eta urriaren 31ko eguna ere ohitura eta erritoz beteriko eguna da. Egun honek gurean hainbat elementu ditu, iluntasunaren etorrerarekin beldurrak piztu egiten dira, jaia bera beldurraren inguruan kokatzen dugu. Kalabazak hustu eta zuloak egin, kandela baten argiarekin itzal beldurgarriak egiteko, etxeko arropa zaharrarekin jantzi eta aurpegia estali edo margotu kalean beldurra eragiteko, eta noski, etxez etxe eskean aritu.

Bada zer ospatu! Gurea ere bada eguna, naturarena. Naturarekin konektatu, aldaketak naturarekin batera ospatu eta gurean gure hizkuntzan bizi jaia, euskaraz bizi!

Engainagarriak

Bederatzi zati hauetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.

GAU BELTZA

Apaindu eta margotu.



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gaztaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

George Hodan

Kamil Dariusz Mazurkiewicz

JAIOTERRIA
OSTROWIEC SWIETOKRZYSKI, POLONIA (1993)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
LAN EGITERA ETORRI ZEN ESKUALDERA

"Espero ez nituen lagunak eta inoiz irudikatuko ez nituzkeen lanak egin ditut Laudion"

Bi herrialdetako erroak dituzu.

Polonian jaio nintzen, baina bi urte nituela Italiako hegoaldera joan ginen bizitzera, Calabriara. 'Bota'ren puntan dago, Siziliatik gertu. Gurasoak poloniarrak badira ere, ni bertan bizi izan naiz ia bizitza osoan. Italiarra naiz. Hala ere, harremana daukat Poloniako kulturarekin, gurasoek transmititu didatelako, batik bat, hizkuntza.

Etxean poloniera ikasi nuen; eskolan, ordea, italiera. Poloniera ez dut gurasoek bezain ondo hitz egiten, menperatzen badut ere. Hizkuntza zaila denez, gramatika konplexua da klasean ikasten ez badazu.

Euskaraz hitz egiten duzu?

Ez, lau hizkuntzatan egiten dut berba, gaztelaniaz, italieraz, ingelesez eta polonieraz. Momentuz nahikoa izan dut. Euskara ikasi nahiko nuke, elkarrizketak ulertzeko. Bartzelonan bizi nintzenean katalanera ulertzen nuen, Italiako hegoaldeko dialektoaren antzekoa baita. Hemen, aldiz, ez dut ezer ulertzen.

Nola iritsi zinen Aiaraldeara?

Hemeretzi edo hogei urte nituenean, Norvegiara joan nintzen, aita bertan bizi zelako. Bost urte eman nituen Oslon lanean, eta bertan ezagutu nuen Zaloa, nire emaztea, ostalaritza ikastaro batean. Bera hiru urtez bizi izan zen Norvegian. Luxuzko lokaletan lan egin ondoren, lekuz aldatzea erabaki nuen. Norvegia munduko lekurik zoriontsuena omen da, baina negua luzea da eta argi ordu gutxikoa. Udan, berriz, egunak ez dira inoiz amaitzen. Arazoa da 8 hilabete irauten duela neguak, zerotik azpiko tenperaturetan, gainera.

Hortik Aiaraldeara etorri zineten zuzenean?

Ez. Gaztelania ikasten nengoen une horretan, Zaloaren laguntzaz, baina ez neukan argi nora joan. Orduan topatu nuen Basque Culinary Centerreko formakuntza bat, koktelgintzari aplikatutako sukaldaritza-teknikei buruzkoa. Bertan ikastea ihesbidea izan zen, lekuz aldatzeko eta bertoko gastronomian murgiltzeko. Horren ostean, lan praktikak egin nituen Bartzelonan eta Donostiara itzuli nintzen, Pedro Subijanaren hiru Michelin izarreko Akelarre jatetxera.

Zein da Laudioren eta Donostia ren arteko aldea?

Donostia erakargarria da, baina zeozer falta zaio. Kontxa hondartza, esaterako, txundigarria iruditzen zait, ur kristalinoetara ohituta nagoen arren. Laudiora COVIDaren ondorioz etorri nintzen, konfinamenduaren aurreko egunean, hain zuzen; bertan lan egiten nuen negozioak itxi zuelako eta Zaloa hemengoa delako. Horrez gain, Laudiok nire herria gogorarazten dit eta jendea hurbilagoa da.

Hemen ikusten duzu zeure burua?

Asko ikasi dut, hasieran espero ez banuen ere. Aurreko bezeroekin nuen tratua oso desberdina zen; hemen askoz hurbilagoa da eta gustuko dut. Espero ez nituen lagun asko egin ditut eta inoiz imajinatuko ez nituzkeen lanak burutu ditut, pintxopote batean aritzea, adibidez. Oso aberasgarria da. Orain Alacantetik itzuli naiz, bertako jatetxe bat kudeatzen ari baikara eta proiektu berrietan gaude lanean hemen, oraingoz isilpekoak direnak.

ITALIA

DESKRIBAPENA
Hegoaldeko Europako estatua da, Po ibaiaren harana eta Sizilia eta Sardinia uharteak ere barne hartzen dituena. San Marino eta Vatikano Hiria mikro-estatuak, gainera, Italiaren barruko enklabeak dira. Errepublika parlamentarioa da gaur egun, eta hogei lurraldek osatzen dute guztira.

AZALERA
301.340 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
60,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Italiera, veneziera edota siziliera besteak beste.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofía Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ausolan
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
Graf!k
Telleria 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom
araba álava foru aldundia diputación foral
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA